

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxe-ko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza hau Urola Kostako Udal Elkarte-ko Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen 2017ko abenduaren 14ko bilkuran eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren indarrean sartu zen (GAO 2018-02-15, 33. zk.).

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA	5
I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	5
1. artikulua. Objektua	5
2. artikulua. Aplikazio-eremua	6
3. artikulua. Kudeaketaren erantzukizuna. Zerbitzuaren derrigorrezko erabilpen eta onarpena.	6
4. artikulua. Araubidea	6
5. artikulua. Hondakinaren definizioa	6
6. artikulua. Frakzioaren definizioa	6
7. artikulua. Hondakinen jabetza	7
8. artikulua. Debekuak	7
9. artikulua. Araubide fiskala	7
II. TITULUA. HONDAKINAK BILTZEA	7
I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK	7
10. artikulua. Biltzeko sistema	7
11. artikulua. Biltzeko derrigortasuna	8
12. artikulua. Programazioa	9
13. artikulua. Larrialdi kasuak	9
14. artikulua. Bilketa zerbitzutik kanpo geratzen diren hondakinak	9
II. KAPITULUA. BILKETA SISTEMA EDUKIONTZIEN BIDEZ	10
15. artikulua. Bilduko diren hondakin frakzioak	10
16. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.	10
17. artikulua. Biltzeko puntuak	11
18. artikulua. Edukiontziak	11
19. artikulua. Edukiontzien zainketa	12



20. artikulua.	Gaikako bilketa: hondakin organikoak	12
21. artikulua.	Gaikako bilketa: etxeko papera eta kartoia.....	13
22. artikulua.	Gaika bilketa: ontzi arinak	13
23. artikulua.	Gaikako bilketa: beirazko ontziak.....	13
24. artikulua.	Gaikako bilketa: arropa eta etxeko beste hondakin batzuk	13
25. artikulua.	Gaikako bilketa: pilak.....	14
26. artikulua.	Gaikako bilketa: landare olioak	14
27. artikulua.	Gaikako bilketa: errefusa.....	14
III. KAPITULUA. ZERBITZUAK	HONDAKINAK PUNTUZ PUNTU BILTZEKO ZERBITZUA: KOMERTZIOAK, OSTALARITZA ETA 15	
28. artikulua.	Bilduko diren hondakin frakzioak	15
29. artikulua.	Erabiltzaileen betebeharrak	15
30. artikulua.	Hondakinak entregatzeko edukiontziak, ontziak eta beste osagai batzuk.....	16
31. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: hondakin organikoak.....	17
32. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: papera/kartoia	17
33. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: errefusa	17
IV. KAPITULUA. DIREN INDUSTRIAKO HONDAKINAK	HONDAKINAK PUNTUZ PUNTU BILTZEKO ZERBITZUA: ETXEKO HONDAKINEN BALIOKIDE DIREN INDUSTRIAKO HONDAKINAK	18
34. artikulua.	Zerbitzuak jasoko dituen frakzioak.....	18
35. artikulua.	Erabiltzaileen betebeharrak	18
36. artikulua.	Hondakinak entregatzeko edukiontziak, ontziak eta beste osagai batzuk.....	19
37. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: hondakin organikoak.....	20
38. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: kartoia	20
39. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: ontzi arinak.....	20
40. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: egurra	21
41. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: plastiko filma	21
42. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: poliespana	21
43. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: errefusa	21
44. artikulua.	Puntuz puntuko bilketa: hondakin handiak.....	22
V. KAPITULUA.	BESTE BILKETA ZERBITZU BATZUK	22
45. artikulua.	Hondakin handien bilketa.....	22
46. artikulua.	Udal azoka, azoka ibiltari eta gisa berekoetan sortutako hondakinen bilketa.....	22
47. artikulua.	Festa eta bestelako ekitaldietako hondakinen bilketa	23
VI. KAPITULUA.	GARBIGUNE ZERBITZUA.....	23
48. artikulua.	Garbigune zerbitzuaren erabiltzaileak.....	23
49. artikulua.	Tasak	24
50. artikulua.	Hondakinak jasotzeko egutegia eta ordutegia	24



51. artikulua.	Onartzen diren hondakinak	24
52. artikulua.	Kopuruak eta mugak	25
53. artikulua.	Sarbidearen kontrola	25
54. artikulua.	Entregatzeko kontrola. Zaintza	25
55. artikulua.	Erabiltzailearen erantzukizun eta betebeharrak	25
56. artikulua.	Pisatzearen kontrola	26
57. artikulua.	Berrerabiltzea	26
58. artikulua.	Egituratzalea banatzea	27
VII. KAPITULUA.	BIRZIKLATZEKO ETXOLA	27
59. artikulua.	Zerbitzuaren definizioa	27
60. artikulua.	Zerbitzuaren doakotasuna	27
61. artikulua.	Onartzen diren hondakinak	27
62. artikulua.	Erabiltzailearen betebeharrak	27
VIII. KAPITULUA.	KONPOSTAJEA	27
I. ATALA.	AUTOKONPOSTAJEAREN ARAUAK	27
63. artikulua.	Konposta egiteko hondakinak	27
64. artikulua.	Konpostagailuak	28
65. artikulua.	Konpostaren helburua	28
II. ATALA.	AUZOAN KONPOSTA EGITEKO ARAUAK	28
66. artikulua.	Gaitutako lekuak	28
67. artikulua.	Prestakuntza	29
68. artikulua.	Konposta egiteko eremuen ezaugarriak	29
69. artikulua.	Mantentze-lanak	29
70. artikulua.	Instalazioak eta materialak	30
71. artikulua.	Konposta egiteko hondakinak	30
72. artikulua.	Hondakinak uztea	30
73. artikulua.	Konpostaren arduraduna	30
74. artikulua.	Prozesua	31
75. artikulua.	Kalitatearen kontrola	31
76. artikulua.	Jarraipena	32
77. artikulua.	Onura fiskalak	32
III. TITULUA.	ZEHAPENEN ARAUBIDEA	32
I. KAPITULUA.	XEDAPEN OROKORRAK	32
78. artikulua.	Sarrera	32
79. artikulua.	Prozedura	32
80. artikulua.	Zehatzeko ahalmena	32
81. artikulua.	Hondakinen erantzule den titularra	32



82. artikulua.	Arau-hausteen erantzule diren subjektuak	33
83. artikulua.	Ikuskapenak	33
II. KAPITULUA.	ARAU HAUSTEAK	33
84. artikulua.	Legezko sailkapenaren garapena.....	33
85. artikulua.	Arau-hauste motak	34
86. artikulua.	Zehapenak	35
87. artikulua.	Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.....	35
88. artikulua.	Jarduera osagarria	35
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.....		36
AZKEN XEDAPENA.....		36
INDARGABETZEKO LEHEN XEDAPENA		36
ERANSKINAK		37
I. ERANSKINA.	HONDAKIN ORGANIKOAK.....	37
II. ERANSKINA.	PAPERA/KARTOIA	37
III. ERANSKINA.	ONTZI ARINAK.....	37
IV. ERANSKINA.	BERIAZKO ONTZIAK.....	38
V. ERANSKINA.	ARROPA/EHUNKIAK ETA ETXEKO BESTE HONDAKIN BATZUK.....	38
VI. ERANSKINA.	PILAK ETA AKUMULATZAILEAK	38
VII. ERANSKINA.	SUKALDEKO LANDARE OLIOA	39
VIII. ERANSKINA.	ERREFUSA	39
IX. ERANSKINA.	EGUR HONDAKINAK.....	39
X. ERANSKINA.	PLASTIKO FILMA	39
XI. ERANSKINA.	POLIESPANA.....	40
XII. ERANSKINA.	HONDAKIN HANDIAK	40
XIII. ERANSKINA.	GARBIGUNEEN ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA.....	40
XIV. ERANSKINA.	GARBIGUNEAN ONARTZEN DIREN HONDAKINAK ETA MUGAK	40
XV. ERANSKINA.	OBRA TXIKIETAKO ERAISPEN LANETAKO OBRA HONDAKINAK ENTREGATZEKO KONTROLA 42	
XVI. ERANSKINA.	BIRZIKLATZEKO ETXOLAKO HONDAKINEN ZERRENDA	42

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Bere Estatutuen 5. artikulua ezarritakoaren argitaratzearen helburua da, besteak beste, etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxe-eko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzea, Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan, bestela esan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian.

2008/98/CE zuzentarauak (hondakinen zuzentzarau markoak) marko juridiko berria ezarri du Europar Batasunean hondakinen kudeaketaren arloan. Zuzentzarau horrek hautsi egiten du hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen ekoizpenaren harremana eta azpimarra jartzen du prebentzioan. Prebentzioa neurri multzo gisa definitzen du, produktu bat hondakin bilakatu aurretik hartu behar dena, substantzia arriskutsuen kopurua eta edukia murriztu eta sortutako hondakinek pertsonen osasunean nahiz ingurumenean sortzen dituzten kalteak murrizteko. Horren haritik, hondakinen ekoizpen eta kudeaketan ondoko hierarkia ezartzen du: lehenik, prebentzioa, gero berrerabiltzeko prestatzea eta, ondoren birziklatzea edo bestelako balorizazioa. Horren guztiaren xedea da Europar Batasuna "birziklatze gizarte" bihurtzea eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan ekarpena egitea.

Zuzentzarau hori guri dagokigun ordenamendu juridikora aldatu zen uztailaren 28ko 22/2011 Legearen bidez (hondakinei eta lur kutsatuei buruzko legea). Lege horrek ordurarte indarrean egon zen apirilaren 21eko 10/1998 Legea ordezkatu zuen.

22/2011 legearen bigarren xedapen iragankorrek ezartzen du tokiko erakundeek lege horretako 12.5 artikuluan aurreikusitako ordenantzak onartuko dituztela, 2 urteko epearen barruan, lege hori indarrean sartzen denetik hasita. Halaber, adierazten du horrelakorik ezean autonomia erkidegoek onartzen dituztenak aplikatuko dituztela.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Objektua

Ordenantza honen objektua da Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten bost udalerrietako etxebizitza, komertzio, zerbitzu eta industrietan sortutako etxe-eko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzea, aipatutako bost udalerrietako udalek Urola Kostako Udal Elkartearen esku utzi duten udal eskumenaren haritik.

Halaber, arautzen ditu hondakinak biltzeko zerbitzuen kudeaketa beregain hartu duen Urola Kostako Udal Elkartearen eta erabiltzaileen arteko harremanak eta batzuen eta besteen eskubide eta betebeharrak.



Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari dagokionez, erabiltzaile dira mankomunatutako bost udalerrietakoren batean helbidea duten eta zerbitzu horien hartzaile diren edo zerbitzu horien eraginpean dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiak. Erabiltzaileek zerbitzu horiek erabiliko dituzte indarrean dauden lege-xedapenen eta Ordenantza honen arabera. Erabiltzaile izan daitezke, halaber, eskualdekoak ez direnak, betiere Udal Elkartearen berariazko baimena baldin badute.

Erabiltzaileak hiru kategoriatan sailkatuko dira, hondakinak biltzeko aplikatzen zaien sistemaren arabera. Kategoria horiek hurrengo ataletan datoz zehaztuta.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza honen aplikazio-eremua ondoko bost udalerrri hauena da: Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia.

3. artikulua. Kudeaketaren erantzukizuna. Zerbitzuaren derrigorrezko erabilpen eta onarpena.

Urola Kostako Udal Elkarteari dagokio etxebizitza, komertzio, zerbitzu eta industrietan sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzea, Ordenantza honen arabera eta 22/2011 Legearen 12.5 artikulua arlo juridikoan Euskadiko Autonomia Erkidegoak ezartzen duenaren arabera.

Gisa horretako hondakinak dituzten erabiltzaileek (betiere eskualdean sortutako hondakinak baldin badira), hondakinak Urola Kostako Udal Elkarteari entregatu behar dizkiote, balorizatu edo desagerraraz ditzan, Ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan.

Urola Kostako Udal Elkarteari dagozkio, halaber, zaintza eta ikuskapen eginkizunak.

4. artikulua. Araubidea

Ordenantza hau oinarritzen da eta lotzen zaio uztailaren 28ko 22/2011 Legeari (hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa; Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2011ko uztailaren 29a, 181 . zk.) eta aplikatzekoa den gainerako araubideari.

5. artikulua. Hondakinaren definizioa

Ordenantza honi dagokionez, "hondakin" gisa hartuko dira gorago aipatutako 22/2011 Legearen (hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoaren) lehen atalean zehazten direnak (bereziki 3 eta 6. artikulua).

6. artikulua. Frakzioaren definizioa

Hondakinak sailkatuko dira beren izaera eta tratatzeko moduaren arabera. Hondakin multzo bakoitzari frakzio esango zaio.



7. artikulua. Hondakinen jabetza

Hondakinen ekoizleek (sortzaileek) edo edukitzaileek Urola kostako Udal Elkartearen esku utziko dituzte hondakinak, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan. Udal Elkarteak egingo da hondakin horien jabe entregatu eta jasotzen dituenen.

Ekoizle edo edukitzaileak hondakin horiek eragin ditzaketen kalteen erantzukizunetik salbu geratuko dira, betiere Ordenantza honetan eta indarrean dagoen araubidean ezarritako entregatzeko baldintzak betetzen badira.

8. artikulua. Debekuak

Debekatuta dago:

- a) Bilketa zerbitzuak jasotzeko kalean edota edukiontzietan utzita dauden hondakinak manipulatzeko, hautatzea edo hartzea.
- b) Hondakinak erretzea, leku publikoan nahiz pribatuan.
- c) Etxeko hondakinak estolderia-sarera isurtzea, osorik nahiz trituratuta: zigarrokinak, pixoihalak, zapi hezeak, janari hondarrak...

9. artikulua. Araubide fiskala

Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren tasen ordenantza fiskala ezarriko du, indarrean dagoen zerga araubide orokorarekin bat etorritik. Erabiltzaileek tasa horiek ordaindu egin behar dituzte.

Tasak ezartzeko moduan neurriak hartu ahal izango dira hondakin gutxiago sortzen duten erabiltzaileak edota, hondakinen hierarkiaren arabera, hondakinak erantzukizun handiagoz kudeatzeko jokamoldeen alde egiten duten erabiltzaileak ekonomikoki saritzeko.

II. TITULUA. HONDAKINAK BILTzea

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

10. artikulua. Biltzeko sistema

Hondakinak biltzeko sistema honela antolatuko da:

- a) Etxebizitzetan sortutako hondakinak bilduko dira kalean (espaloietan) jarritako edukiontzien bidez edota lurpean instalatutako edukiontzien bidez. Era horretara jasoko dira honako frakzioak: hondakin organikoak, papera/kartoia, ontzi arinak, beirazko ontziak, etxeko olioak, pilak, arropa eta errefusa. Hondakin organikoak eta errefusa biltzeko edukiontziak irekiko dira erabiltzaileak identifikatuko dituen sistema batekin.
- b) Komertzioetan eta ostalaritzan sortutako honako frakzioak bilduko dira puntu-puntu: hondakin organikoak, papera/kartoia eta errefusa. Gainerako frakzioak bilduko dira kaleko edukiontzien bidez. Kopuru txikiak sortzen dituzten komertzio eta ostalaritzako establezimenduek frakzio



guztietarako kaleko edukiontzia erabiliko dituzte. Udal Elkarteak zehaztuko ditu komertzio eta ostalaritzako establezimenduak ekoizle esanguratsuak direla zehazteko irizpideak. Puntuz puntu bilketaren frakzioetan zerbitzu horren maiztasuna baino handiagoa behar duten sortzaile handiei maiztasun egokitu zaie edota baimena emango zaie kaleko edukiontzia ireki ahal izateko.

- c) Etxeko hondakinen baliokide diren industriako hondakinen frakzio hauen bilketa puntu puntu egingo da: papera/kartoia, egur hondakinak, hondakin organikoak, ontzi arinak, plastiko filma, poliespana eta errefusa.
- d) Beste hondakin batzuk ere bilduko dira: hondakin handiak; festa eta ekitaldietako hondakinak; udal azoka, azoka ibiltari eta gisa bereko azoketako hondakinak.
- e) Garbigune zerbitzua: erabiltzaileek etxeko hondakinak utzi ditzakete gaika bereizita.
- f) Birziklatzeko etxolaren zerbitzua, etxeko hondakinak bereiztuta uzteko gunea.
- g) Autokonposta eta auzo konposta.

Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak biltzeko sistema egokitu edo aldatu egin ahal izango du, lortutako emaitza tekniko eta ekonomikoen arabera, kontuan hartuz Urola Kostako eskualdean hondakinen sorreran eragin handiena duena faktoreetako bat estazionalitatea dela.

11. artikulua. Biltzeko derrigortasuna

Urola Kostako Udal Elkarteak bilduko ditu etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak eta industrian sortutako hondakinak, etxeko hondakinen baliokide baldin badira.

Etxeko hondakinak biltzeko eskubidea izango dute, soilik, horretarako Urola Kostako Udal Elkartearen baimena duten zerbitzuek, Ekoizlearen Erantzukizun Gehitu Kolektiboaren sistema batek (SCRAP laburdura dutenak; edo lehen SIG laburdura zutenak) babestutako hondakinen kasuan izan ezik. Ondorioz, debekatuta dago bestelako pertsona fisiko edo juridikoek hondakinak biltzeko lanak egitea.

Nolanahi ere den, etxeko hondakin arriskutsuen kasuan edo bere ezaugarriengatik egoki kudeatzea zailtzen duten hondakinen kasuan, Udal Elkarteak etxeko hondakin horien ekoizleak edota hondakin horiek dauzkatenak behartu ahal izango ditu neurriak hartzera, kudeaketa zailtzen duten ezaugarriak ezabatu edo gutxitzeko eta era eta leku egokian uzteko.

Komertzioetan sortutako hondakin ez arriskutsuak eta industrian sortutako etxeko hondakinak kudeatuko dira derrigorrez Ordenantza honen bidez ezarritako sistema publikoaren bidez (edota etorkizunean berau ordezkatzeko duen araubidearen bidez). Horrenbestez, hondakin horien hasierako enpresa ekoizleek edo edukitzaileek ezingo dute uztailearen 28ko 22/2011 Legearen (hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoaren) 17. artikuluko 3. atalean aurreikusitako aukera baliatu.

Nolanahi ere den, Urola Kostako Udal Elkarteak erabaki ahal izango du zerbitzua ez eskaintzea, kokapenengatik edota sortutako hondakinen ezaugarri, bolumen edo kopuruarengatik.

Hondakinak biltzeko zerbitzu mankomunatua jasotzen ez bada, ekoizlearen betebeharra izango da: baimendutako enpresa kudeatzaile batekin kontratua sinatzea, hondakinak erretiratu direla egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea (gutxienez urtebetez) eta dokumentu horiek Udal Elkartearen esku jartzea, honek eskatzen dionean.

12. artikulua. Programazioa

Urola Kostako Udal Elkartek hondakinak gaika biltzeko zerbitzuen informazioa jakitera emango du (egunak, ordutegiak, hondakinak nola eta non utzi...), hainbat bide erabiliz: informazio taulak, webgunea, informazio orrien banaketa, iragarkiak, hedabideak...).

Udal Elkartek, interes publikoaren mesedetan, egoki irizten dituen aldaketa eta egokitzapenak egin ahal izango ditu hondakinak biltzeko zerbitzuetan. Aldaketa horien berri behar besteko aurrerapenez emango du.

Udal Elkarteko lehendakariak (edo honen delegatu den pertsonak) behar diren aginduak emango ditu larrialdi, ezbehar eta aparteko egoeratan. Agindu horien xehetasunak ezarriko dira lehendakariaren ebazpenaren bidez.

13. artikulua. Larrialdi kasuak

Zerbitzua eskaintzea ezinezko egiten duten larrialdiko egoerak gertatzen badira (gizarte gatazkak, uholdeak, elurteak edo bestelako aparteko egoerak), erabiltzaileek ez dituzte beren hondakinak aterako, zerbitzua bere onera etorri arte edota Udal Elkartek horrela jakinarazi arte. Egoera hori aurrez komunikatuko du Udal Elkartek.

14. artikulua. Bilketa zerbitzutik kanpo geratzen diren hondakinak

Baztertuta geratzen dira eta, beraz, bilketa zerbitzuek ez dituzte derrigorrez jasoko honako hondakinak:

- a) Industria jardueran sortutako hondakinak: ekoizpenean, transformazioan, erabileran, kontsumoan, garbiketan edo mantentze-lanetan sortutako hondakinak.
- b) Izaera industrialak duten enpresetan sortutako hondakin arriskutsuak.
- c) Lur mugimendu, eskabazio eta obra handi publiko nahiz pribatu etako zaborrak.
- d) Hildako animaliak eta animalien azpiproduktuak, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 zenbakiko Erregelamenduan (CE) jasota daudenak.
- e) Altzari eta tresnak, tamaina handikoak, etxebizitzak hustu, altzariak aldatu edo etxebizitza aldatzetik sortutakoak eta, beraz, isolatutzat har ez daitezkeenak. Halaber, etxebizitzak altzariz hornitzeko edo etxez aldatzeko bildukinak.
- f) Kaleak garbitzeko zerbitzuek jasotako hondakinak.
- g) Abandonatutako ibilgailuak.
- h) Udal Elkartek berariaz zehaztu gabeko bestelako hondakinak, beren izaera edo ezaugarriak direla eta hondakinak biltzeko zerbitzu mankomunatuak kudeatu ezin dituenak.

II. KAPITULUA. BILKETA SISTEMA EDUKIONTZIEN BIDEZ

15. artikulua. Bilduko diren hondakin frakzioak

Urola Kostako Udal Elkarteak edukiontziak jarriko ditu kalean (espaloietan) edota lurpean, ondoko frakzio hauek bereizita biltzeko (edukiontzi motak eta kopuruak handitu edo gutxitu egin ahal izango ditu, sistemaren eraginkortasunaren arabera):

- a) Hondakin organikoak.
- b) Papera/kartoia.
- c) Ontzi arinak.
- d) Beirazko ontziak.
- e) Landare olioak.
- f) Pilak.
- g) Berrerabil daitezkeen hondakin frakzioak: RAEEak (tresna elektriko eta elektronikoetako hondakinak), ehunkiak...
- h) Errefusa.

Hondakin organikoak eta errefusa biltzeko edukiontzien irekitzeko sistema izango dute, erabiltzaileak identifikatuko dituena.

Edukiontzi motak, bilketa-eremu bakoitzeko unitate kopurua eta kokapena Udal Elkarteak zehaztuko ditu, dagokion udalarekin batera.

16. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Erabiltzaileen betebeharra da hondakinak bereiztuta edukiontzietan uztea, Udal Elkarteak zehazten dituen ordutegi eta lekuetan.

Etxebizitzek eta hondakin kopuru esanguratsuak sortzen ez dituzten establezimenduek erabiltzailea identifikatuko duen txartel bat izango dute hondakin organikoen eta errefusaren edukiontziak irekitzeko.

Erabiltzaileen txartelak Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek konfiguratu dituzte honako informazioarekin: txartelak irekiko dituen edukiontzi zehatzak eta edukiontziak irekitzeko asteko egunak edo ordutegiak.

Erabiltzaileen betebeharra da hondakin frakzio bakoitza dagokion edukiontzian bereiztuta uztea, hala nola: hondakin organikoak, papera/kartoia, ontzi arinak, beira, landare olioak, pilak eta berrerabil daitezkeen hondakin frakzioak (RAEEak, ehunkiak...). Debekatuta dago hondakin frakzio jakin bat ez dagokion edukiontzian uztea.

Erabiltzaileen betebeharra da, halaber, hondakinak edukiontzia barruan uztea, eta ez, inola ere, kanpoan.



Horrez gain, ezingo dira kaleko edukiontzietan utzi, tamaina dela eta edukiontzia ahoa tratatzen edo oztopatzen duten hondakinak.

Debekatuta dago edukiontzietan uztea likidoak dituzten edota likidotu daitezkeen hondakinak.

Debekatuta dago 50 °C edo gehiagoko T^a duten hondakinak edukiontzietan uztea.

Udal Elkarteak ikuskapen zerbitzu bat izango du, erabiltzaileek hondakinak era egokiak uzten dituztela bermatzeko.

17. artikulua. Biltzeko puntuak

Udal Elkarteak zehaztuko ditu, udalekin koordinatuta, kalean hondakinak biltzeko erabiltzaileen eskura jarriko diren puntuak (puntu berriak jarri, dauden puntuak kendu).

Erabiltzaile baten iritzi beharrezkoa baldin bada edukiontzia bere etxebizitza edo establezimendutik hurbilago kokatzea, eskaera egin ahal izango dio Udal Elkarteari. Udal Elkarteak dagokiona erabakiko du, eskaera eta zerbitzuaren aukerak kontuan hartuta.

Udal Elkarteak Ordenantza honek hizpide dituen frakzio nagusiak biltzeko puntu berriak jarri ahal izango ditu, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean.

18. artikulua. Edukiontziak

Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek zehaztuko dituzte, udalekin koordinatuta, kalean jarriko diren edukiontzien ezaugarriak (mota, kolorea, edukiera, fabrikazio-materiala, kopurua) eta, oro har, erabiltzaileek hondakinak entregatzeko komeni diren bestelako osagaien ezaugarriak.

Udal Elkarteak osatzen duten udalek lurpeko edukiontzien guneak jarri ahal izango dituzte, betiere Udal Elkarteak hondakinak biltzeko unean-unean erabakita duen ohiko sistemarekin bateragarri baldin badira eta, horrez gain, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Lurpeko edukiontzien puntua jartzeko obra zibila eta instalazioa eskaera egin duen udalaren kontura izango da, eta etxebizitzaren sustatzaile edo promotorearen kontura etxebizitza berriak baldin badira.
- b) Lurpeko edukiontzien puntua jarri aurretik, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek oniritzia jaso beharko dute kokapenak eta instalazioaren ezaugarriak.
- c) Hondakinak uzteko aho edo zuloak identifikatuko dira Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek zehaztutako kolore, legenda eta ezaugarriekin.
- d) Instalazioa amaitu ondoren, udalak entregatuko ditu urrutiko aginte bat lurpeko edukiontzi mota bakoitzeko eta instalazioa automatikoki ireki ahal izateko ordezkari aginte bat.
- e) Edukiontzien ontzi edo kubeten ohiko garbiketa eta mantentze-lanak Udal Elkarteak egingo ditu.
- f) Lurpeko edukiontzien instalazioaren eta fosa edo hobiaren garbiketa eta mantentze-lanak udalaren kontura izango dira.
- g) Instalazioa matxuratu delako edo egoki ez dabilelako ezin badira hondakinak bildu, udalak konponketa lanak egingo ditu ahalik eta lasterren, zerbitzua eskaintzea ziurtatzeko.



- h) Bilketa zerbitzuari ez dagozkion arrazoiengatik instalazioa handitzea beharrezkoa balitz (inguruan etxebizitza berriak, merkataritzako establezimendu berriak, sortutako hondakin kopurua handitzea...), udalari legokioke lan horiek egitea.
- i) Udal Elkarteak izango da hondakinak biltzeko lanek eragin ditzaketen kalte eta galeren erantzulea. Instalazioaren egoera txarrak eragindako kalte eta galeren erantzulea udala izango da.

19. artikulua. Edukiontzien zainketa

Udalek behar den hiri-espazioa gordeko dute edukiontzia husteko, bilketa-zerbitzuetako kamioiek maniobrak egiteko eta edukiontzia behar bezala zaintzeko lanak egin ahal izateko.

Udal Elkartearen zerbitzuek edukiontzia maiztasun jakin batekin garbituko dituzte, beren egoeraren arabera, higie egoera egokian egon daitezten.

Erabiltzaileen eta, oro har, herritarren, betebeharra da edukiontzia zaintzea eta higie eta segurtasun egoera egokian erabili eta mantentzea eta, beraz, edukiontzien beren erru, zabarkeria edo arduragabekeriaren ondorioz jasan ditzaketen kalteen erantzule izango dira.

Halaber, edukiontzien puntuetan dauden bestelako osagaiak (babesteko langa, pibote, barra, marka...) eragindako kalteen erantzule izango dira.

Debekatuta dago edukiontzia mugitu eta lekuz aldatzea eta edukiontzia manipulatzeko, egoera arriskutsuak eraginez edo bilketa zerbitzuek hondakinak biltzea zailduz.

20. artikulua. Gaikako bilketa: hondakin organikoak

Erabiltzaileen betebeharra da hondakin organikoak uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu.

Udal Elkarteak hondakin organikoak pilatzeko ontziak banatuko dizkie eskatzen duten erabiltzaileei. Hautazkoa da konpostagarriak diren poltsak erabiltzea.

Debekatuta dago hondakin organikoen edukiontzian uztea harategi, arrandegi eta merkataritza establezimenduetan sortutako haragi eta arrain hondarrak.

Gorago aipatutako establezimenduek baimendutako enpresen zerbitzuak kontratatu beharko dituzte aipatutako azpiproduktu horiek bildu eta kudeatzeko (hondakinen entregak ziurtatzeko dokumentuak gorde beharko dituzte urtebetez).

Arrandegietako arrain hondakinen kasuan, titularrek erabili ahal izango dute horretarako Udal Elkarteak eskaintzen duen bilketa-zerbitzua (garbigune zerbitzua).

Animalia azpiproduktuak era egokian kudeatzen direla egiaztatzen duten dokumentuak Udal Elkartearen eskura jarriko dira, honek horrela eskatzen badu.



[I. eranskinean](#) datoz zehaztuta hondakin organikoen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

21. artikulua. Gaikako bilketa: etxeko papera eta kartoia

Erabiltzaileen betebeharra da papera eta kartoia uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu. Kartoia edukiontzian utzi behar da egoki tolestuta.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute etxeko papera eta kartoia garbiguneetara eramateko.

[II. eranskinean](#) datoz zehaztuta paper eta kartoiaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

22. artikulua. Gaika bilketa: ontzi arinak

Erabiltzaileen betebeharra da ontzi arinak uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute ontzi arinak garbiguneetara eramateko.

[III. eranskinean](#) datoz zehaztuta ontzi arinen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

23. artikulua. Gaikako bilketa: beirazko ontziak

Erabiltzaileen betebeharra da beirazko ontziak uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian.

Beirazko ontzien frakzioa edukiontzian utziko da 8:00etatik 22:00etara, edota, auzotarren ongizateari ahalik eta kalterik txikiena eragiteko Udal Elkarteak horretarako ezartzen duen ordutegian.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute beirazko ontziak garbiguneetara eramateko.

[IV. eranskinean](#) datoz zehaztuta beirazko ontzien frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

24. artikulua. Gaikako bilketa: arropa eta etxeko beste hondakin batzuk

Erabiltzaileen betebeharra da arropa eta etxeko bestelako hondakinak uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute arropa eta etxeko beste hondakin batzuk garbiguneetara eramateko.

[V. eranskinean](#) datoz zehaztuta arropa eta etxeko beste hondakin batzuen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

25. artikulua. Gaikako bilketa: pilak

Erabiltzaileen betebeharra da pilak uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute pilak garbiguneetara eramateko.

[VI. eranskinean](#) datoz zehaztuta pilen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

26. artikulua. Gaikako bilketa: landare olioia

Erabiltzaileen betebeharra da landare olioia uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu. Erabilitako landare olioia edukiontzian utziko da beirazko edo plastikozko ontzi batean sartu eta itxita.

Nahiz izanez gero, ekoizle edo edukitzaileek aukera dute landare olioia garbiguneetara eramateko.

Debekatuta dago edukiontzietan merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimenduetako olioia uztea.

Gorago aipatutako establezimenduek baimendutako enpresen zerbitzuak kontratatu beharko dituzte landare olioia bildu eta kudeatzeko (hondakinen entregak ziurtatzeko dokumentuak gorde beharko dituzte urtebetez).

Landare olioia behar bezala kudeatu dela egiaztatzen duten dokumentuak Udal Elkarteari bidali behar zaizkio urtero, martxoaren 31 baino lehen.

[VII. eranskinean](#) datoz zehaztuta landare olioaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

27. artikulua. Gaikako bilketa: errefusa

Erabiltzaileen betebeharra da errefusaren frakzioa (hau da, birziklatu ezin diren hondakinek osatzen duten frakzioa) uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen moduan eta lekuan.

Erabiltzaileen betebeharra da errefusaren frakzioa uztea Udal Elkarteak horretarako zehazten duen edukiontzian, itxitako plastikozko poltsetan sartuta, ordutegi mugarik gabe, betiere Udal Elkarteak egutegi eta ordutegi zehatzak ezartzen ez baditu.



[VIII. eranskinean](#) datoz zehaztuta errefusaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

III. KAPITULUA.HONDAKINAK PUNTUZ PUNTU BILTZEKO ZERBITZUA: KOMERTZIOAK, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK

28. artikulua. Bilduko diren hondakin frakzioak

Urola Kostako Udal Elkarteak atez ate jasoko dizkie honako frakzioak merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimenduei:

- a) Hondakin organikoak.
- b) Papera/kartoia.
- c) Errefusa.

Udal Elkarteak bilduko dituen frakzioak aldatu ahal izango ditu, interes orokorra, ingurumenaren babesa edo eraginkortasun ekonomikoa kontuan hartuta.

Hondakin horien kopuru txikiak sortzen dituzten merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimenduek kaleko edukiontzia erabiliko dituzte. Horri dagokionez, Ordenantza honetako II. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da.

Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek erabakiko dute establezimendu jakin bat ekoizle esanguratsua den ala ez, sortzen dituen kopuruak aztertuta.

Merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako establezimendu guztiek kaleko edukiontzietan utziko dituzte ontzi arinen eta beirazko ontzien frakzioak.

Landare olio baimendutako kudeatzaile batekin kudeatuko dute. Debeztatuta dago frakzio hori kaleko edukiontzietan uztea.

Landare olio behar bezala kudeatu dela egiaztatzen duten dokumentuak Udal Elkarteari bidali behar zaizkio urtero, martxoaren 31 baino lehen.

Puntuz puntu edo kaleko edukiontzien bidez jaso ezin diren eta etxeko hondakinen baliokide diren hondakinak (hala nola, egurrezko kaxak, poliespana, bildukinetako plastiko filma...) garbiguneetara eraman ahal izango dira, aurrez Udal Elkarteko zerbitzu tekniko baimena jasota.

29. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileen betebeharra da hondakin frakzioak jatorrian bereiztea, hondakinak puntuz puntu biltzeko Udal Elkartearen zerbitzuaren esku utzi aurretik.



Puntuz puntuko bilketa zerbitzua derrigorrezkoa da erabiltzaileentzat eta burutuko da Udal Elkartek erabakitzen duen programazioaren eta ordutegiaren arabera. Hondakinak ezarritako ordutegitik edo egutegitik kanpora uzten badira, zehapenak jarriko dira.

Hondakinak utziko dira biltzea ez zailtzeko moduan. Erabiltzaileak atal honetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabiltzailea izango da erantzule.

Debekatuta dago edukiontzia uztea oinezko eta ibilgailuen joan-etorria oztopatzen duen lekuan.

Bilketa zerbitzuek erabaki ahal izango dute Ordenantza honetan zehaztutako baldintzak (hala nola, ordutegia, maiztasuna, sailkatuta ez egotea, higiene baldintzak...) bete gabe uzten diren hondakinak ez jasotzea.

Establezimenduaren arduradunaren betebeharra da Udal Elkarteari jakinaraztea, batetik, hondakinak uzteko ontzi/edukiontzien beharra eta, bestetik, Udal Elkartek emandako ontzi/edukiontzien inguruko gorabeherak.

30. artikulua. Hondakinak entregatzeko edukiontziak, ontziak eta beste osagai batzuk

Udal Elkartek zehaztuko ditu erabiltzaileek hondakinak entregatzeko erabiliko dituzten ontzi eta edukiontzien ezaugarriak (mota, kolorea, edukiera, fabrikazio-materiala, kokapena, kopurua) eta, oro har, hondakinak entregatzeko komeni diren bestelako osagaien ezaugarriak.

Udal Elkartek erabiltzaileei edukiontziak emango dizkie zerbitzuaren hasieran. Hortik aurrera, hasierakoa ordezkatzeko edukiontziak ere emango zaizkie, hautsi bada edo egoera txarrean baldin badago, betiere ez bada izan erabiltzailearen erabilera okerraren edo arduragabekeriaren ondorioz. Debekatuta dago hondakinak uztea Udal Elkartek onartu gabeko edukiontzietan edo erabiltzea beste erabilpen baterako entregatutako ontzi edota edukiontziak.

Establezimenduaren egitekoa da ontzi/edukiontzia garbitzea, egoki erabiltzea eta zaintzea.

Hondakinak utziko dira ontzi/edukiontziaren barruan. Debekatuta dago kanpoan uztea (merkataritzako kartoiaren kasuan izan ezik).

Ontzi/edukiontziak itxita egongo dira eta, bilketa zerbitzuaren ordutegitik kanpora, erabiltzailearen establezimenduaren barruan.

Edukiontzia (itxita) establezimenduaren kanpoaldean utziko du erabiltzaileak, Udal Elkartek ezartzen dituen bilketa egun eta ordutegietan.

Ontzi/edukiontziak utziko dira Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek finkatzen dituzten puntuetan. Debekatuta dago ontzi/edukiontziak uztea oinezko edo ibilgailuen joan-etorria oztopatzeko moduan.

Udal Elkartek ezarritako ordutegian ontzi/edukiontziak hustu ondoren, establezimenduaren egitekoa izango da kalean jarritako ontzi/edukiontzia erretiratzea.



Nolanahi ere den, erabiltzailearen erantzukizuna da, batetik, ontzi/edukiontzia berruz soilik bilketa jakin horri dagozkion hondakinak daudela ziurtatzea eta, bestetik, beste pertsonak edukiontzietara sarbiderik ez izateko behar diren bitartekoak jartzea.

31. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: hondakin organikoak

Hondakin organikoen frakzioa entregatuko da sortutako kopuruari egokitutako ontzi/edukiontzia batean, Udal Elkarteak ezartzen duen egutegi eta ordutegian. Erabiltzaileak aukera du Udal Elkarteak ontziak jotako poltsa konpostagarriak erabiltzeko. Poltsa irekita utziko da, ikuskapenak egitea errazteko.

Urte sasoi batzuetan hondakin organiko kopuru handiak sortzen dituzten erabiltzaileek, salbuespen gisa, kaleko edukiontzia erabili ahal izango dituzte. Udal Elkarteak baloratuko ditu salbuespen egoera horiek.

[I. eranskinean](#) datoz zehaztuta hondakin organikoen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

32. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: papera/kartoia

Kartoia utziko da, Udal Elkarteak ezartzen dituen egutegi eta ordutegietan, era egokian tolestu eta pilatuta edota ontzi/edukiontzia berruz, betiere ahalik eta bolumen txikiarekin eta oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorria oztopatu gabe.

Egoera berezietan establezimenduek kaleko edukiontzia erabili ahal izango dituzte, betiere aurrez Udal Elkarteari jakinarazi eta honen baimena jasota.

[II. eranskinean](#) datoz zehaztuta papera eta kartoiaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

33. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: errefusa

Errefusaren frakzioa entregatuko da sortutako kopuruari egokitutako ontzi/edukiontzia batean, Udal Elkarteak ezartzen duen egutegi eta ordutegian. Erabiltzaileak aukera du Udal Elkarteak ontziak jotako poltsak erabiltzeko. Poltsa irekita utziko da, ikuskapenak egitea errazteko.

Egoera berezietan establezimenduek kaleko edukiontzia erabili ahal izango dituzte, betiere aurrez Udal Elkarteari jakinarazi eta honen baimena jasota.

[VIII. eranskinean](#) datoz zehaztuta errefusaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.



IV. KAPITULUA. HONDAKINAK PUNTUZ PUNTU BILTZEKO ZERBITZUA: ETXEKO HONDAKINEN BALIOKIDE DIREN INDUSTRIAKO HONDAKINAK

34. artikulua. Zerbitzuak jasoko dituen frakzioak

Udal Elkarreak etxeke hondakinen baliokide diren ondoko frakzio hauek jasoko ditu puntuz puntu industrian:

- a) Hondakin organikoak.
- b) Papera eta kartoia.
- c) Ontzi arinak.
- d) Egurra.
- e) Plastiko filma.
- f) Poliespana.
- g) Errefusa.

Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek enpresa bakoitzak frakzio bakoitzean sortzen duen hondakin kopurua aztertuko du, frakzio bakoitza biltzeko maiztasuna finkatzeko.

Beirazko ontziak sortzen dituzten enpresek kaleko edukiontziak erabiliko dituzte.

Landare olio baimendutako kudeatzaile batekin kudeatuko da. Debeztatuta dago frakzio hori kaleko edukiontzietan uztea. Landare olio behar bezala kudeatu dela egiaztatzen duten dokumentuak Udal Elkarteari bidali behar zaizkio urtero, martxoaren 31 baino lehen.

Zerbitzu honetako frakzioetan hondakin kopuru oso txikiak sortzen dituzten enpresek garbigune zerbitzua erabili ahal izango dute, betiere Udal Elkarreak eskaera baloratu eta baimena ematen badio.

Puntuz puntuko zerbitzuaren bidez erretiratu ezin diren eta etxeke hondakinen baliokide diren bestelako hondakinak garbiguneetara eraman ahal izango dira, betiere aurrez Udal Elkartearen baimena jasota.

Udal Elkarreak bilduko dituen frakzioak aldatu ahal izango ditu, interes orokorra, ingurumenaren babesa edo eraginkortasun ekonomikoa kontuan hartuta.

35. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileen betebeharra da hondakin frakzioak jatorrian bereiztea, hondakinak puntuz puntu biltzeko Udal Elkartearen zerbitzuaren esku utzi aurretik.

Puntuz puntuko biltzea zerbitzua derrigorrezkoa da erabiltzaileentzat eta burutuko da Udal Elkarreak erabakitzen duen programazioaren eta ordutegiaren arabera. Zehapenak jartzeko arrazoi izango da hondakinak ezarritako ordutegitik edo egutegitik kanpora uztea edo komertzio edo enpresek baimenik gabe hondakinak edukiontzian uztea.



Hondakinak utziko dira biltzea ez zaitzeko moduan. Erabiltzaileak atal honetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabiltzailea izango da erantzule.

Debekatuta dago edukiontzia uztea oinezko eta ibilgailuen joan-etorria oztopatzen duen lekuan.

Bilketa zerbitzuek erabaki ahal izango dute ez jasotzea Ordenantza honetan zehaztutako baldintzak (kokapena, ordutegia, maiztasuna, sailkatuta ez egotea, higiene baldintzak...) bete gabe uzten diren hondakinak. Hori gertatzen bada, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoak enpresaren arduradunarekin harremanetan jarriko dira, gorabehera horri irtenbidea emateko.

Aurreko kasua gertatu eta hondakinak jaso gabe uzten badira ere, zerbitzua eskaini dela ulertuko da, dagokion tasaren oinarri ezargarriari dagokionez.

Enpresaren arduradunaren betebeharra da Udal Elkarteari jakinaraztea, batetik, hondakinak uzteko ontzi/edukiontzien beharra eta, bestetik, Udal Elkarateak emandako ontzi/edukiontzien inguruko gorabeherak.

36. artikulua. Hondakinak entregatzeko edukiontziak, ontziak eta beste osagai batzuk

Udal Elkarateak zehaztuko ditu erabiltzaileek hondakinak entregatzeko erabiliko dituzten ontzi eta edukiontzien ezaugarriak (mota, kolorea, edukiera, fabrikazio-materiala, kokapena, kopurua) eta, oro har, hondakinak entregatzeko komeni diren bestelako osagaien ezaugarriak.

Udal Elkarateak erabiltzaileei edukiontziak emango dizkie zerbitzuaren hasieran. Hortik aurrera, hasierakoa ordezkatzeko edukiontziak ere emango zaizkie, hautsi bada edo egoera txarrean baldin badago, betiere ez bada izan erabiltzailearen erabilera okerraren edo arduragabekeriaren ondorioz.

Debekatuta dago hondakinak uztea Udal Elkarateak onartu gabeko edukiontzietan edo erabiltzea beste erabilpen baterako entregatutako ontzi edota edukiontziak.

Enpresaren titularraren egitekoa da ontzi/edukiontzia garbitzea.

Hondakin organikoen frakzioa eta errefusaren frakzioa ontzi/edukiontzia berruan utziko dira, ezinbestean. Gainerako frakzioak utzi ahal izango dira ontzi/edukiontzirik gabe, aurrez Udal Elkaratearen baimena jasota eta Udal Elkarateak jartzen dituen baldintzak betez.

Ontzi/edukiontziak itxita egongo dira eta, bilketa zerbitzuaren ordutegitik kanpora, erabiltzailearen jabetzaren barruan.

Ontzia/edukiontzia (itxita) kalean utziko du enpresan ardura hori duen erabiltzaileak (eremu publiko nahiz pribatuan), Udal Elkarateak ezartzen dituen bilketa egun eta ordutegietan.

Ontzi/edukiontzia utziko da Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek finkatzen duten puntuan. Debekatuta dago ontzi/edukiontziak uztea oinezko edo ibilgailuen joan-etorria oztopatzeko moduan.



Udal Elkarteak ezarritako ordutegian ontzi/edukiontzia hustu ondoren, enpresaren egitekoa izango da kalean jarritako ontzi/edukiontzia erretiratzea.

Nolanahi ere den, erabiltzailearen erantzukizuna da, batetik, ontzi/edukiontzia barruan soilik bilketa jakin horri dagozkion hondakinak daudela ziurtatzea eta, bestetik, beste pertsonak edukiontzietara sarbiderik ez izateko behar diren bitartekoak jartzea.

37. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: hondakin organikoak

Hondakin organikoak aterako dira Udal Elkarteak enpresari emandako edukiontzietan. Erabiltzaileak aukera du Udal Elkarteak ontzat emandako poltsa konpostagarriak erabiltzeko. Poltsa irekita utziko da, ikuskapenak egitea errazteko.

[I. eranskinean](#) datoz zehaztuta hondakin organikoen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

38. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: kartoia

Kartoia utziko da, Udal Elkarteak ezartzen dituen egutegi eta ordutegietan, era egokian tolestu eta pilatuta edota dagokion edukiontzia barruan, betiere ahalik eta bolumen txikienarekin eta oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorria oztopatu gabe.

Kartoia utzi ahal izango da ontzi/edukiontzirik gabe, aurrez Udal Elkartearen baimena jasota eta Udal Elkarteak jartzen dituen baldintzak betez.

Egoera berezietan, salbuespen gisa, enpresek garbigunea erabili ahal izango dute, aurrez Udal Elkarteak eskaera baloratu eta onartuta.

[II. eranskinean](#) datoz zehaztuta kartoiaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

39. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: ontzi arinak

Hondakinak aterako dira Udal Elkarteak enpresari emandako edukiontzietan, horretarako ezartzen diren egun, ordu, leku eta moduan. Erabiltzaileak aukera du poltsak erabiltzeko. Poltsa irekita utziko da, ikuskapenak egitea errazteko.

Ontzi arinak utzi ahal izango dira ontzi/edukiontzirik gabe, aurrez Udal Elkartearen baimena jasota eta Udal Elkarteak jartzen dituen baldintzak betez.

[III. eranskinean](#) datoz zehaztuta ontzi arinen frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.



40. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: egurra

Egur hondakinak aterako dira bere horretan (edukiontzian sartu gabe), Udal Elkarteak ezartzen dituen egun, ordu, leku eta moduan. Udal Elkarteak mugatu egin ahal izango ditu bilketa zerbitzuak jasoko dituen egur hondakinen kopuru eta tamaina.

Erabiltzaile batek egur hondakinen zati txikien kopuru esanguratsua sortzen badu eta erabiltzailearentzat nahiz bilketa zerbitzuentzat hondakin horiek manipulatzeko zaila baldin bada, erabiltzaile horrek Udal Elkarteari edukiontzia erabiltzeko eskaera egin ahal izango dio. Udal Elkarteak eskaera aztertu eta, egoki iritzi gero, edukiontzia eskuratuko dio.

[IX. eranskinean](#) datoz zehaztuta egurraren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

41. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: plastiko filma

Plastiko film hondakinak aterako dira Udal Elkarteak enpresari emandako edukiontzietan, horretarako ezartzen diren egun, ordu, leku eta moduan.

Plastiko filma utzi ahal izango da ontzi/edukiontzirik gabe, aurrez Udal Elkartearen baimena jasota eta Udal Elkarteak jartzen dituen baldintzak betez.

[X. eranskinean](#) datoz zehaztuta plastiko filmaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

42. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: poliespana

Poliespan hondakinak aterako dira Udal Elkarteak enpresari emandako edukiontzietan, horretarako ezartzen diren egun, ordu, leku eta moduan.

Poliespan hondakinak utzi ahal izango dira ontzi/edukiontzirik gabe, aurrez Udal Elkartearen baimena jasota eta Udal Elkarteak jartzen dituen baldintzak betez.

[XI. eranskinean](#) datoz zehaztuta poliespanaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

43. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: errefusa

Hondakinak aterako dira Udal Elkarteak enpresari emandako edukiontzietan, horretarako ezartzen diren egun, ordu, leku eta moduan. Erabiltzaileak aukera du poltsak erabiltzeko. Poltsa irekita utziko da, ikuskapenak egitea errazteko.

[VIII. eranskinean](#) datoz zehaztuta errefusaren frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.



44. artikulua. Puntuz puntuko bilketa: hondakin handiak

Beren ezaugarriak direla eta (bolumena edo pisua) beste era batera jaso behar diren hondakinak dira: pertsianak, erakusgailuak, altzariak, panelak...

Hondakin horiek biltzeko enpresa erabiltzailea Udal Elkartearekin harremanetan jarriko da, bilketa-zerbitzuaren eskaera egiteko. Udal Elkarteak eskaera onartu edo ezetsi egingo du, eskaera erregistratu eta gehienez ere hamar (10) laneguneko epearen barruan.

Debekatuta dago maneiatzeko bitarteko mekanikoak (garabiak, poleak...) behar dituzten hondakinak edo bere horretan garraiatu ahal izatea ezinezko egiten duten hondakinak uztea.

Debekatuta dago hondakin handiekin (etxeko tresna eta altzariekin) batera bestelako hondakinak uztea, bereziki eraikuntzako obra txikietako hondakinak, etxeko konponketa eta berritze lanetako hondakinak, pneumatikoak eta Ordenantza honen arabera derrigorrez jaso beharrekoak ez diren hondakinak.

V. KAPITULUA. BESTE BILKETA ZERBITZU BATZUK

45. artikulua. Hondakin handien bilketa

Hondakin handi gisa hartzen dira tresna eta altzariak, bestela esan, etxebizitza berritu edo aldatzearen ondorioz herritarrek baztertzen dituzten etxeko altzari eta ekipamenduak (aparrailu elektrikoak, aparrailu elektronikoak, telebistak, garbigailuak...).

Erabiltzaileek hondakin handiak edukiontzien eremuetan utziko dituzte, bilketa egunaren bezperan, 20:00etatik 22:00etara, aurrez Udal Elkarteak onartzen duen bilketa-egutegiaren arabera.

Debekatuta dago hondakin handiekin (etxeko tresna eta altzariekin) batera bestelako hondakinak uztea, bereziki eraikuntzako obra txikietako hondakinak, etxeko konponketa eta berritze lanetako hondakinak, pneumatikoak eta ordenantza honen arabera derrigorrez jaso beharrekoak ez diren hondakinak.

Nahi izanez gero, erabiltzaileek hondakin handiak garbiguneetara eramateko aukera dute.

[XII. eranskinean](#) datoz zehaztuta hondakin handien frakzioan onartzen diren eta onartzen ez diren hondakinen zerrendak.

46. artikulua. Udal azoka, azoka ibiltari eta gisa berekoetan sortutako hondakinen bilketa

Atal honetan sartzten dira Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan egunero nahiz astero egiten diren azoketan nahiz egin litezkeen ezohiko azoketan sortutako hondakinak.

Honako frakzioak jasoko dira, gutxienez:

- a) Papera/kartoia.
- b) Hondakin organikoak.



- c) Ontzi arinak.
- d) Egurrezko kaxak.
- e) Errefusa.

Saltzaileen betebeharra da frakzioak egoki bereiztu eta Udal Elkarteak ezartzen duen modu eta lekuan uztea. Azoka amaitutakoan ez da hondakinik geratuko okupatutako postuetan.

Horretarako, Udal Elkarteak, udaletako garbiketa zerbitzuekin koordinatuta, hondakinak uzteko eremuak jarriko ditu, hondakinen frakzioak bereiztuta jasotzeko edukiontziekin hornituta. Erabiltzaileen betebeharra da sortutako hondakinak eremu horretara eraman eta frakzio bakoitza dagokion edukiontzian sartzeara.

47. artikulua. Festa eta bestelako ekitaldietako hondakinen bilketa

Festa, jai edo ekitaldiaren antolatzaile/arduradunak Udal Elkarteak eskainitako bilketa zerbitzuren bat behar baldin badu, idatziz egingo du eskaera (mezu elektronikoa bidalita), jai edo ekitaldiaren data baino 15 egun lehenago (gutxienez).

Udal Elkarteak eskaera eta behar diren edukiontziak aztertuko ditu eta antolatzaile/arduradunak adierazitako puntuan jarriko ditu, jai edo ekitaldia ospatu aurretik, behar besteko aurrerapenez.

Honako frakzioak jasoko dira, gutxienez:

- a) Papera/kartoia.
- b) Hondakin organikoak.
- c) Ontzi arinak.
- d) Egurrezko kaxak.
- e) Errefusa.

Festa edo ekitaldiaren antolatzaileen betebeharra da, batetik, hondakin frakzioak egoki bereiztea eta jai edo ekitaldia amaitutakoan, ekitaldiaren eremuan hondakinik ez uztea, eta, bestetik, utzitako edukiontziak adostutako lekuan entregatzea.

VI. KAPITULUA. GARBIGUNE ZERBITZUA

48. artikulua. Garbigune zerbitzuaren erabiltzaileak

Garbigune zerbitzua erabili ahal izango dute soilik Urola Kostako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako) eskualdeko biztanleak.

Merkatariek, eraikuntzako gremio txikiek, industriek eta udal zerbitzuek (brigadak, bulegoak..) ere garbigune zerbitzua erabili ahal izango dute, aurrez Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren baimena jasota, betiere entregatutako materialek ez badituzte gairatzen etxebizitzentzat ezarritako kopuru eta mugak eta Udal Elkarteko eremuko udalerrietan egindako obra edo lanetan sortutako hondakinak badira.

Garbigune zerbitzua erabiltzeko eskaera egiteko inprimakiak eskura egongo dira Udal Elkartearen webgunean, Udal Elkartearen bulegoetan eta garbiguneetan. Jasotako eskaera eta dokumentuen



arabera Udal Elkarteak garbigunean hondakinak uzteko eskaera onartu edo ezetsi egingo du, eskaera erregistratu eta gehienez ere hamar (10) laneguneko epearen barruan.

Baimenaren balioa 4 urtekoa izango da, gehienez ere, eta prekarioan emango da. Baimena kentzeak ez du kalte-ordain eskubiderik sortuko.

Salbuespen gisa, Urola Kosta eskualdekoak ez diren erabiltzaileak ere onartu ahal izango dira, betiere Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen baimena jaso eta araudi honetan zehaztutako baldintza guztiak betez gero.

49. artikulua. Tasak

Zerbitzua, a priori, doakoa izango da.

Nolanahi ere den, Udal Elkarteak zerbitzu jakin batzuentzat tasak ezarri ahal izango ditu, dagokion ordenantza fiskalaren bidez.

50. artikulua. Hondakinak jasotzeko egutegia eta ordutegia

[XIII. eranskinean](#) daude zehaztuta hondakinak uzteko eta erabiltzaileei arreta eskaintzeko egutegia eta ordutegiak. Egutegia eta ordutegiak Udal Elkarteko lehendakariaren ebazpenaren bidez aldatu ahal izango dira.

Ordutegiaren informazioa une oro eskura egongo da Udal Elkartearen webgunean eta garbiguneen sarreran.

Debekatuta dago garbiguneetan ezarritako ordutegitik kanpo sartzea, aurrez Udal Elkarteak baimendutako kasuetan izan ezik.

51. artikulua. Onartzen diren hondakinak

Onartzen dira [XIV. eranskineko](#) zerrendan agertzen diren hondakinak.

Onartzen diren hondakinen zerrenda hori eguneratu eta aldatu egin ahal izango du Udal Elkarteak lehendakariaren ebazpenaren bidez, egoki iritzitako hondakinak gehitzeko. Aldaketen berri Udal Elkartearen webgunean eta garbiguneetan emango da.

Hondakinak bildu eta tratatzeko lanak optimizatzeko helburuz, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du garbiguneetan hondakin jakin bat ez onartzea.

Obra txikietako eraikuntza eta eraipen lanetako hondakinak entregatzeko kontrol prozedurari dagokionez, [XV. eranskinak](#) ezarritakoari jarraituko zaio.



52. artikulua. Kopuruak eta mugak

Honakoak dira gehienezko bolumena eta kilo kopurua: 2 m³ eta 750 kg, erabiltzaileko eta asteko. Hondakin sortzaile berezi batzuen kasuan, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du salbuespenak egitea, muga horiek handitu edo murriztuz (bolumena nahiz pisua), betiere hori egiteko arrazoiak egoki justifikatzen badira.

Garbigunean hondakinak hustu ditzakete soilik baimendutako gehienezko zama 3.500 kg baino txikiagoa duten ibilgailuek.

53. artikulua. Sarbidearen kontrola

Debekatuta dago baimenik gabe garbiguneetan sartzea. Debeku hori ez betetzeak zehapenak ekar ditzake. Instalazioak uzteko eskatu ahal izango zaie instalazioak era egokian erabiltzen ez dituzten erabiltzaileei.

Garbigunean sartzen den pertsona eta erabiltzaile orok garbiguneko langilearen jarraibideak bete behar ditu, zehatz mehatz.

Garbiguneetara sartzen diren bisitariak sartu behar dute bertako langileak lagunduta eta aurrez Urola Kostako Udal Elkarteako zerbitzu teknikoaren baimena jasota.

54. artikulua. Entregatzeko kontrola. Zaintza.

Garbiguneetako sarrera bertako langileak zainduko du, zerbitzuarentzat ezarritako ordutegian.

Erabiltzaileen arretari dagokionez, garbiguneko langileek eginkizun hauek dituzte:

- a) Erabiltzaileei argibideak ematea hondakinak non eta nola utzi.
- b) Garbigunearen instalazioa txukun eta egoera egokian zaindu eta edukitzea.
- c) Onartzen ez diren hondakinak uztea debekatzea.
- d) Sartu diren hondakin eta erabiltzaileen erregistroa.
- e) Honako datuak jasotzea: ibilgailuaren matrikula eta hondakinaren jatorria, kopurua eta tipologia.
- f) Irteten diren hondakinen eta helmugen erregistroa.

[XV. eranskinean](#) hondakinak entregatzeko zehazten den kontrol prozedura aldatu egin ahal izango du Udal Elkarteak, lehendakariaren ebazpenaren bidez. Aldaketen berri Udal Elkartearen webgunean eta garbiguneetan emango da.

55. artikulua. Erabiltzailearen erantzukizun eta betebeharrak

Erabiltzaileak une oro garbiguneko langilearen jarraibideak beteko ditu:

- a) Zerbitzua era egokian eskaintzeko garbiguneko langileak eskatzen dion informazioa emango dio (hondakinaren jatorria, hondakin mota, gutxi gorabeherako kopurua, identifikazio-datuak...).



- b) Erabiltzaileak dakarren materiala dagokion edukiontzian utziko du, era ordenatuan, hondakinen izaeraren arabera.
- c) Hondakinak husteko lanak egingo dira modurik egokienean, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko (bereziki zaratari dagokionez).
- d) Hondakinak hustu ondoren, ingurua garbituko du, beharrezkoa baldin bada.
- e) Ibilgailua era eta abiadura egokian gidatuko du, bidea beti libre utziz eta PMA 3.500 kg baino txikiagoa izango du.
- f) Ez du asteko 2 m³-ko bolumena edo 750 kg-ko pisua gaudituko, idatziz Udal Elkartearen baimena eduki ezean.

56. artikulua. Pisatzearen kontrola

Hondakinak uztera garbiguneetara bertaratzen diren ibilgailuei eskatu ahal izango zaie pisatzeko (garbigunean bertan), dakartzaten hondakinen izaeraren eta kopuruaren arabera.

Erabiltzaileak homologatutako enpresak egindako baskularen kalibrazio ziurtagiria eskatu ahal izango dio garbiguneko langileari, justifikatutako arrazoiak baldin baditu.

57. artikulua. Berrerabiltzea

Garbiguneek eduki ahal izango dute berrerabiltzeko eremu bat, erabiltzaileek entregatu eta egoera onean daudenez berriz ere erabiltzeko aukera duten objektu eta tresnak jasotzeko (RAEEak, hondakin handiak...).

Garbiguneetan jasotzen diren RAEEak aztertu egingo dira, birziklatzeko instalazioetara eraman aurretik berrerabiltzeko moduan dauden ala ez ikusteko, otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuarekin (aparailu elektriko eta elektronikoei buruzkoarekin) bat etorritik.

Udal Elkarteko erabiltzaile eta biztanleek hondakin horiek hartu ahal izango dituzte, doan. Nolanahi ere den, hondakin horiek ezingo zaizkie beste batzuei saldu, horretarako Urola Kostako Udal Elkartearen berariazko baimenik izan ezean.

Hori bideratzeko, zerbitzuaren erabiltzaileek materialak hartzeko eskaera egingo diote Udal Elkarteari eta justifikatu beharko dute materialak norbere erabilpenerako direla.

Atal honetan xedatutakoa betetzeko, Udal Elkarteak erabiltzaileari bere bizilekua egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango dio.

Berrerabiltzeko eremuan jarritako objektuen banaketa bidezkoa izateko, honako mugak jartzen dira erabiltzaileko eta asteko: bi objektu txiki (liburuak, jostailuak...); edo, objektu handi bat (bizikletak, altzariak...) edo aparailu elektriko bat (telebistak, radiadoreak, irratia...).

Udal Elkarteak ikusten badu erabiltzaile bera behin eta berriz muga-mugan dabilela, eskatu ahal izango dio dokumentu bidez egiaztatzeko erretiratutako ondasunen erabilpen pribatiboa. Egiaztatzen ez badu, ukatu egingo zaio berrerabiltzeko materialen eremura sartzeko aukera.



Nolanahi ere den, erabiltzaileentzat debekatuta dago garbiguneko langilearen baimenik gabe berrerabiltzeko eremura sartu eta objektuak hartzea.

58. artikulua. Egiturazailea banatzea

Etxean konposta egiten duten erabiltzaileei laguntzeko, garbiguneetan material egiturazailea eskura izango dute. Erabiltzaile bakoitzak gehienez ere eskuratu ahal izango ditu bi poltsa (5kg inguru) hamabost eguneko epealdi bakoitzeko.

Kopuru handiagoa emateko idatziz eskaera egin Udal Elkarteak onartu egin beharko du.

VII. KAPITULUA. BIRZIKLATZEKO ETXOLA

59. artikulua. Zerbitzuaren definizioa

Birziklatzeko etxola etxean sortzen diren hondakinak bereiztuta biltzeko gune bat da. Etxola herritar guztiek erabil dezakete, modu iraunkorren.

Etxolek metalezko egitura sendoa dute, segurtasun handikoa. Etxolaren hormetan dauden aho edo zuloetatik hondakinak sartu eta barruan pilatzen dira. Birziklatzeko etxolen itxura prestatu da inguruarekin bat etortzeko moduan.

60. artikulua. Zerbitzuaren doakotasuna

Birziklatzeko etxolen zerbitzua doakoa da.

61. artikulua. Onartzen diren hondakinak

Ordenantza honen [XVI. eranskinean](#) daude zehaztuta birziklatzeko etxolan onartzen diren hondakinak.

62. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak

Hondakin eta materialak bereiztuta sartuko ditu, bakoitza dagokion frakzioaren aho edo zuloan.

Hondakinak uzterakoan ingurua zikintzen badu, garbitu egin behar du.

VIII. KAPITULUA. KONPOSTAJEA

I. ATALA. AUTOKONPOSTAJEAREN ARAUAK

63. artikulua. Konposta egiteko hondakinak

Honako hondakin organiko hauekin egin ahal izango da konposta:

- a) Fruitu eta barazki zatiak.
- b) Janari eta ogi zatiak.



- c) Itsaski, arrautza eta fruitu lehorren azalak.
- d) Erabilitako sukaldeko papera, janari hondarrak dituen (produktu kimiko eta garbikaririk gabe).
- e) Kafe eta infusioen hondarrak.
- f) Hosto lehorrak, lorategiko landareen zatiak eta kimatze lanetako hondakinak (zatitua).
- g) Zerrautsa eta egur birutak (tratatu gabe).
- h) Lastoa eta soropila.

64. artikulua. Konpostagailuak

Udal Elkarteak konpostagailua emango die eskatzen duten erabiltzaileei.

Konpostagailua emango zaie baldintza hauek betetzen dituzten erabiltzaileei: konpromisoa hartzea konpostagailua erabiltzeko beharrezko den prestakuntza jasotzeko (behar diren ezagupenak badituela egiaztatu ezean) eta erabiltzaileak nahikoa lur eskura izatea egindako konposta erabiltzeko.

Erabiltzaileen betebeharra izango da batetik, Udal Elkarteari konpostatutako hondakinen kopuruari buruzko informazioa ematea eta, bestetik, beren partzelara sartzen uztea, Udal Elkarteak konpostatzeko prozesuaren jarraipena egin dezan.

Udal Elkarteak eskubidea du erabiltzaileei emandako konpostagailuak erretiratzeko, parte hartzeko ezarritako jarraibideak betetzen ez badituzte edo, justifikatu gabe, prestakuntza jasotzeari uko egiten badiote.

Zerbitzuaren erabiltzaileek etxean konposta egitea sustatzeko helburuz, hobariak eman ahal izango dira dagokion ordenantza fiskalean.

65. artikulua. Konpostaren helburua

Egindako konposta ongarri gisa erabili beharko da soilik sortu duen pertsonaren jabetzako lurretan.

Erabiltzaileak behar baino konposta gehiago egiten baldin badu edo sortutako konposta kalitate onekoa ez bada, Udal Elkarteari jakinaraziko dio, irtenbiderik egokiena aztertzeko.

II. ATALA. AUZOAN KONPOSTA EGITEKO ARAUAK

66. artikulua. Gaitutako lekuak

Udalak auzoan konposta egiteko eremuak jarri ahal izango ditu bere jabetzako lur publikoetan. Eremuak bi erakoak izan daitezke:

- a) Konpostagailuak dituzten eremuak. Konpostagailu bat edo gehiago (beharren arabera) eta egituratzailea eta tresnak gordetzeko altzariak jarriko dira.
- b) Konposta egiteko etxolak Konposta etxolaren barruan egingo da eta tresnak eta egituratzailea ere etxolaren barruan egongo dira.



Auzoan konposta egiteko interesa duten pertsonak eskaera egin ahal izango diote Udal Elkarteari. Udal Elkarteak eskaera egiten duten pertsona edo erakundeei auzoan konposta egiteko eremu bat izendatuko die, betiere erabiltzaile gehiagorentzat lekurik baldin bada. Izen-ematearen arabera, Udal Elkarteak auzoan konposta egiteko eremu berriak jarri edo daudenak handitu ahal izango ditu.

Auzoan konposta egiteko eremua lur pribatuan jarri ahal izango da. Horretarako, Udal Elkarteari eskaera egin behar zaio, jabetzaren titularrek hartutako erabakia erantsita.

Auzoan konposta egiteko instalazioek beteko dituzte Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzaren urriaren 19ko 1/2015 zenbakiko Instrukzioak (EAEn auzoan konposta egiteko instalazioek bete behar dituzten administrazio-prozedurei buruzkoak) ezartzen dituen baldintza teknikoak eta administrazio prozedurak.

67. artikulua. Prestakuntza

Auzoan konposta egiteko derrigorrezkoa da Udal Elkarteak ematen duen prestakuntza-ikastaroa egitea (erabiltzaileak behar diren ezagupenak badituela egiaztatzen duenean izan ezik).

68. artikulua. Konposta egiteko eremuen ezaugarriak

Auzoan konposta egiteko eremuak atal hauek izango ditu:

- a) Hondakinak utzi eta deskonposatzeko lekua.
- b) Umotzeko lekua.
- c) Egituratzailera pilotatzeko lekua.
- d) Tresnak gordetzeko lekua.

Konpostagailuen eremua hesituta egongo da eta konpostagailuak itxita, baimenik ez duten pertsonak erabili edo manipulatzeko eragozteko.

Etxolen eremuak ere giltzarekin ixteko sistemaren bat izango dute.

69. artikulua. Mantentze-lanak

Konposta egiteko eremuaren mantentze-lanetan sartzen dira eremua zaintzeko, konpontzeko eta garbitzeko lanak.

Erabiltzaileen betebeharra da instalazioak eta materialak era egokian erabiltzea eta instalazio eta materialen egoera arriskuan jartzen duten portaerak ez burutzea.

Lur publiko nahiz pribatuetan kokatutako konposta egiteko eremuen mantentze-lanen ardura honela banatuko da:

- a) Udal Elkarteari dagozkio eremua zaintzeko eta konpontzeko lanak.
- b) Erabiltzaileei dagozkie garbitzeko lanak.



70. artikulua. Instalazioak eta materialak

Lur publikoetan auzoan konposta egiteko eremuen proiektuak Udal Elkarteak eta dagokion udalak idatzi eta burutuko dituzte. Halaber, Udal Elkarteak eta udalak behar diren ekipo eta instalazioak eta konposta egiteko materialak eskura jarriko dituzte.

Parke eta lorategi publikoetako kimatze lanetako hondakinak material egituratzaile gisa erabiliko dira.

Udal Elkarteak banatuko du material egituratzailea auzoan konposta egiteko eremu publiko zein pribatuetara.

71. artikulua. Konposta egiteko hondakinak

Honako hondakinekin egin ahal izango da konposta:

- a) Fruitu eta barazki zatiak.
- b) Janari eta ogi zatiak.
- c) Itsaski, arrautza eta fruitu lehorren azalak.
- d) Erabilitako sukaldeko papera, janari hondarrak dituen (produktu kimiko eta garbikaririk gabe).
- e) Kafe eta infusioen hondarrak.
- f) Hosto lehorrak, lorategiko landareen zatiak eta kimatze lanetako hondakinak (zatitua).
- g) Zerrautsa eta egur birutak (tratatu gabe).
- h) Lastoa eta soropila.

72. artikulua. Hondakinak uztea

Debekatuta dago auzoan konposta egiteko eremuan aurreko artikuluan adierazi ez diren hondakinak uztea.

Onartzen diren hondakinak sartu behar dira konpostagailuan edo etxolak duen deskonposiziorako lekuan, zuzenean (poltsarik gabe) edo poltsa konpostagarrian sartuta, prestakuntza-ikastaroetan ematen diren jarraibideen arabera.

Hondakinak sar daitezke edozein ordutan.

73. artikulua. Konpostaren arduraduna

Auzoan konposta egiteko eremuaren arduradunak izango du eremu horretako konposta egiteko prozesuaren kudeaketaren ardura. Bere borondatez ardura hori txandaka bere gain hartzen duen erabiltzaile bat izan daiteke.

Nolanahi ere den, pertsona horren ardura izango da konposta egitea Udal Elkarteak ikastaroen eta gidien bidez ematen dituen jarraibideen arabera.

Egiteko hauek izango ditu:

- a) Konposta maiztasunez nahastea, airea har dezan.



- b) Arazo edo gorabeheraren bat atzematen duenean Udal Elkarteari jakinaraztea.
- c) Udal Elkarteari material egituratzailea eskatzea.
- d) Udal Elkartearen eta erabiltzaileen arteko bitartekari izatea.
- e) Konpostagailuak edo etxoletako deskonposizio eremuak ixtea, materiala umotzen hasten denean.
- f) Udal Elkarteari laginak hartzeko eta analitikak egiteko eskatzea.
- g) Egindako konpostaren kopuruen berri Udal Elkarteari ematea.
- h) Konposta egin ondoren, konposta egiten duten gainerako erabiltzaileekin elkarlanean, konpostagailuak edo etxolak irekitzea, konposta atera eta banatzeko, aurrez Udal Elkarteak gutxienezko kalitate baldintzak betetzen dituela egiaztatuta.
- i) Erabiltzaileek sortutako konposta baino gutxiago erabiltzen badute, horren berri Udal Elkarteari ematea, irtenbiderik egokiena bilatzeko.

74. artikulua. Prozesua

Konpostagailua betetzen denean, konpostaren arduradunak konpostagailua edo etxolaren eremu hori giltzaz itxi egingo du, hondakinak deskonposatzeko prozesua beste konpostagailu edo gune batean egiteko.

Konposta umotzen amaitutakoan konpostagailuan edo etxolako eremu horretan bertan edukiko da, analitikak egiteko laginak hartu arte.

Konpostagailua edo etxolaren eremu hori irekiko da erabiltzaileek konposta erretiratzeko, soilik konpostaren kalitatea egokia dela ziurtatutakoan.

Konpostaren eskaria sortutako konpostaren kopurua baino txikiagoa baldin bada, Udal Elkarteak erabakiko du soberakinari zer nolako irtenbidea eman.

75. artikulua. Kalitatearen kontrola

Sortutako konpostari kalitate kontrolak egingo zaizkio, zertarako erabili zehaztu ahal izateko. Horretarako, kontuan hartuko da ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretua (ongarritarako produktuei buruzkoa), edo hori ordezkutzen duen araubidea.

Konpostaren arduradunaren egitekoa izango da laginak hartzeko eskatzea. Lagina laborategira Urola Kostako Udal Elkarteak bidaliko du.

Konposta banatuko da Udal Elkarteak kalitate egokia duela egiaztatu ondoren (bestela ez). Horretarako, Udal Elkarteak konpostaren arduradunari material hori erabiltzeko jarraibideak emango dizkio eta honek, era berean, erabiltzaileei.

Auzoan konposta egiteko eremu publiko nahiz pribatuetako kalitate-kontrolaren gastuak Udal Elkartearen kontura izango dira.



76. artikulua. Jarraipena

Udal Elkarteak maiztasun jakin batekin jarraipen-kanpainak egingo dizkie auzoan konposta egiteko eremu publiko eta pribatuei, egoki funtzionatzen dutela eta erabiltzaileek egoki erabiltzen dituztela egiaztatzeko.

Udal Elkarteak gabezia edo akatsak atzematen baditu, neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango ditu. Neurri zuzentzaileak hartzeari edo betetzeari uko egitea nahikoa arrazoi izango da erabiltzailea auzoan konposta egiteko zerbitzutik baztertzeko.

77. artikulua. Onura fiskalak

Auzoan konposta egiten duten erabiltzaileek Ordenantza Fiskalean ezarritako hobariak jaso ahal izango dituzte.

III. TITULUA. ZEHAPENEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

78. artikulua. Sarrera

Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatik jartzen diren zehapenak Atal honetan xedatutakoaren arabera jarriko dira, kasuan kasu izan litezkeen erantzukizun zibil eta penalei kalterik egin gabe.

79. artikulua. Prozedura

Testu honetan jasotako arauak ez betetzearen ondorio diren erantzukizunak dituzten pertsonak zehatu egin ahal izango dira, aldezturik dagokion udalak honako araubide honetan oinarritutako prozedura izapidetuta: otsailaren 20ko 2/1998 Legea (Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalmenari buruzkoa) eta abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretua (hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailearen 28ko 22/2011 Legearen arau-hausteei dagokiona).

80. artikulua. Zehatzeko ahalmena

Uztailearen 28ko 22/2011 Legearen 49.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, hondakinak kontrolik gabe utzi, abandonatu edo isurtzen badira edota entregatzen badira Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak bete gabe, zehapenak jartzeko ahalmena izango da Udal Elkarteak osatzen duten udaletako alkateena.

81. artikulua. Hondakinen erantzule den titularra

Hondakinek beti erantzule den titular bat izango dute, kasuan kasu, erabiltzailea, ekoizlea, hondakinak dauzkana edo kudeatzen dituenak.

Titularrak erantzukizun administratiboa edukitzetik salbu geratuko dira soilik, batetik, Udal Elkarteari hondakinak Ordenantza honetan ezarritakoa eta aplikatzekoa den araubidea betez entregatzen dizkiotenean eta, bestetik, beren hondakinak baimendutako kudeatzaile bati entregatzen dizkiotenean, honek kudeatu ditzan.

82. artikulua. Arau-hausteen erantzule diren subjektuak

Kapitulu honetan jasotzen diren arau-hauste administratiboak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoak zehapena jaso ahal izango dute, Ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki, kasuan kasu izan ditzaketen erantzukizun zibil eta penalen edo ingurumen erantzukizunen kalterik gabe.

Ordenantza honetan ezarritakoa betetzea aldi berean pertsona bati baino gehiagori baldin badagokie, ezartzen den diru-zehapenari modu solidarioan erantzungo diete, urriaren 1eko 40/2015 Legearen (sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoaren) 28.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Nolanahi ere den, erantzukizuna solidarioa izango da kasu hauetan:

- a) Hondakinaren hasierako ekoizle edo edukitzaileak edo hondakinaren kudeatzaileak hondakina entregatzen dionean Lege horrek zehazten dituen pertsona fisiko edo juridikoa ez den bati.
- b) Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta ezin denean zehaztu arau-haustean bakoitzaren parte hartzea zein gradukoa izan den.
- c) Ingurumenari eragindako kaltea sortu bada pertsona askoren jardueren baturarengatik, eskumena duen administrazioak erantzukizun hori eta bere ondorio ekonomikoak egotzi ahal izango dizkie modu indibidualean.

83. artikulua. Ikuskapenak

Erabiltzaileen, ekoizleen edo edukitzaileen betebeharra da Udal Elkarteko hondakinaren kale hezitzaileei eta ikuskapen zerbitzuari laguntzea, beren eginkizunak egoki burutzeko egin behar dituzten kontrol, azterketa, datu-jasotze eta bestelako lanak egin ditzaten.

Udal Elkarteko hondakinaren kale hezitzaileen eginkizuna da zerbitzuari jarraipena egin eta hobetzea, arazoak sortzen dituzten puntuak identifikatzea eta udalekin koordinatzea bilketa-zerbitzuen lana. Horrenbestez, zerbitzuan atzematen dituzten arau-hausteen salaketak helaraziko dizkiete dagokion udalari, zehapen espedientea izapidetu dezan.

Ikuskapen lanak egiten dituzten udal funtzionarioek agintaritza-agente izaera edukiko dute eta horiek egiaztatu eta aktan jasotzen dituzten gertakariei ziurtasun presuntzioa aitortuko zaie, proba-ondorioetarako.

II. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK

84. artikulua. Legezko sailkapenaren garapena

Kapitulu honek garatzen ditu arau-haustek eta zehapenak jartzeko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 46.3.c) artikulua 49.3 artikuluaekin harremanetan toki administrazioei ematen dien eskumena.



Bi artikulua horien argitaratzearen tokiko administrazioaren titularrak honela definitutako arau-hauste larria egiteagatik jarri ahal izango du 901 euro eta 45.000 euro bitarteko isuna: kontrolik gabe edozein hondakin ez arriskutsu utzi, isuri edo suntsitzea, pertsonen osasunari arrisku larrikeria eragin gabe edo ingurumenarentzat kalte edo galera larrikeria eragin gabe.

85. artikulua. Arau-hauste motak

Ordenantza honetan xedatutakoak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, 3/1998 Legearen (Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren) 108. artikulua eta hurrengo araberan eta 22/2011 Legearen (hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoaren) 46. artikulua eta hurrengo argitaratzearen.

Eskumena duten beste organo batzuk ezar ditzaketen arau-hausteei kalterik egin gabe, Ordenantza honek arautzen dituen hondakinen esparruko jardueratako arau-hausteak izan daitezke oso larriak, larriak edo arinak.

1. Arau-hauste oso larriak:

- a) Kontrolik gabe edozein hondakin utzi, isuri edo suntsitzea, pertsonen osasunari arrisku larrikeria eragin gabe edo ingurumenarentzat kalte edo galera larrikeria eragin gabe.
- b) Hondakinak bildu edo tratatzeko Udal Elkarteak erabiltzen dituen bitartekoei nahita kalteak eragitea, xedea izanik osorik suntsitzea edo zerbitzuan ezin erabili ahal izatea.
- c) Edukiontzia, ontziak, kaiolak edo hondakinak biltzeko bestelako osagaiak lapurtzea.
- d) Hondakinak garbigunearen kanpoaldean uztea, zabalik dagoen ordutegian nahiz itxita dagoenean.
- e) Garbigunetik hondakinak erretiratzea, garbiguneko langilearen baimenik izan gabe.
- f) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea. Arau-haustea behin eta berriz egin dela iritziko zaio urtebeteko epean bitan egiten bada.

2. Arau-hauste larriak:

- a) Hondakinen izaera, kopuru edo jatorriari buruzko datuak emateari uko egitea.
- b) Hondakinaren ekoizlearen datuak faltsutzea.
- c) Hondakinak biltzeko puntuetan uztea ordenantza honen arabera jasotzea derrigorrezkoa ez den hondakinen bat.
- d) Erabiltzaileak uko egitea berak sortutako hondakinak biltzeko zerbitzuaren esku uzteari, justifikatutako arrazoirik gabe eta horrela egitea derrigorrezkoa denean.
- e) Hondakinak biltzeko edukiontzi, ontzi, eta bestelako osagaiei kalte estetiko eta funtzionalak eragitea, betiere aurreko paragrafoko b) atalean arau-hauste oso larritzat aurreikusitako arau-haustea ez bada.
- f) Ontzi, edukiontzi eta kaiolak era desegokian manipulatu edo lekuz aldatzea, arrisku egoerak sortuz, biltzeko zerbitzuen jarduna zailduz eta administrazioaren alde aurreko baimenik gabe.
- g) Hondakinak zamatze edo garraiatzeko lanak eragotzi edo zailtzea.
- h) Hondakinak estolderia edo saneamendu sarera zuzenean botatzea.
- i) Biltzeko zerbitzuak jasotzeko kalean utzita dauden hondakinak manipulatu, hautatu edo hartzea.



- j) Hondakinen izaera, kopuru edo jatorriari buruz Garbiguneko arduradunak eskatutako datuak emateari uko egitea.
- k) Garbigunean era desegokian utzitako hondakinak erretiratu edo garbitzeari uko egitea.
- l) Garbiguneko ardura duten langileen agindu eta jarraibideei jaramonik ez egitea.
- m) Garbiguneko ekipo eta instalazioei kalteak eragitea, nahita.
- n) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea. Arau-haustea behin eta berriz egin dela iritziko zaio urtebeteko epean bi arau-hauste arin egiten badira.

3. Arau-hauste arinak:

- a) Hondakinak uztea Udal Elkarteak ezarritako bilketa egutegi eta ordutegik kanpora, hondakinak uzteko finkatutako eremutik kanpora edo onartzen ez den moduren batean.
- b) Hondakinak uztea kalean jarrita dauden paperontzietan edo obra-edukiontzietan.
- c) Likidoak dituzten edo likidotu daitezkeen isurkiak dituzten hondakinak uztea.
- d) 50°C baino tenperatura handiagoa duten hondakinak uztea
- e) Hondakinak gaika biltzeko zerbitzuei uztea gaika sailkatu edo bereiztu gabe.
- f) Hondakinak uztea antolatu gabe, zerbitzuaren jardun arruntari kalte eginez.
- g) Garbiguneko arduradunaren jarraibide eta eskaerak ez betetzea.
- h) Bestelako arau-hausteak, Ordenantza honetan berariaz arau hauste larri edo oso larritzat jotzen ez direnak.

86. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluan zehaztutako arau-hausteengatik ondoren datozen zehapenak (bat edo denak) jarri ahal izango dira:

- a) Arau-hauste oso larriengatik: Isunak, 10.000,01 eta 45.000,00 euro artekoak.
- b) Arau-hauste larriengatik: Isunak, 2.000,01 eta 10.000,00 euro artekoak.
- c) Arau-hauste arinengatik: Isunak, 60,00 eta 2.000,00 euro artekoak.

Zehapena finkatzeko honakoak hartuko dira kontuan: erantzulearen egoera, erru-maila, behin edo behin baino gehiagotan egin duen, parte-hartzea eta jaso duen onura, eta ingurumenari egindako kaltea edo pertsonen osasuna arriskuan zein neurritan jarri den.

87. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

Arau-hauste oso larriak preskribatuko dira 3 urtera, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

88. artikulua. Jarduera osagarria

Jarritako zehapena edozein dela ere, arau-hausleak gauzen egoera arau-haustea egin aurreko egoerara leheneratu beharko du.

Arau-hausleak kaltetutakoa ez badu aurreko atalean ezarritakoaren arabera leheneratzen edo ordezkutzen, zehapena jartzeko eskumena duen organoak erabaki ahal izango du isun hertsatzaileak jartzea, dagokion errekerimenduan ezarritako epea igaro ondotik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen



(administrazio publikoen administrazio prozedura komunaren legearen) 103. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz. Isun bakoitzak ez du gaindituko egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren zenbatekoaren herena.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi gabekoetarako joko da uztailaren 28ko 22/2011 Legea (hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa) eta aplikagarri litzatekeen araubidera.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

Nolanahi ere den, garbigune zerbitzuko erabiltzaileei eta garbiguneetan onartzen diren hondakinei buruzko artikulua (48 eta 51. artikulua hurrenez hurren) indarrean jarriko dira 2018ko martxoaren 1ean.

INDARGABETZEKO LEHEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera indar, balio eta ondoriorik gabe geldituko dira ordenantza honek ezarritakoen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen, erregelamendu eta ordenantzak.



ERANSKINAK

I. ERANSKINA. HONDAKIN ORGANIKOAK

Hondakin organikoaren frakzioan sartzen dira gisa honetako sukaldeko hondakinak, animalia nahiz landare jatorrikoak eta sukaldatu ondoren edo gordinik daudenak: Fruitu eta barazki zatiak, arrautza azalak, fruitu lehorren azalak, ogia eta opilak, fruitu hezurak, lore eta landareak, baratza eta lorategiko hondakinak (belarra, kimatutako adaskak xehatuta), sukaldatutako janari hondarrak, haragi eta arrain zatiak, hezurak, itsaskien azalak, sukaldeko papera, ezpain-zapi eta aho-zapi zikinak, infusioen zorrotxoak, kafe hondar eta filtroak, kortxozko tapoiak eta, oro har, konpostatzeko plantan konposta egiteko onartzen den material oro.

Debekatuta dago hondakin organikoen frakzioan entregatzea goiko zerrendan agertzen ez diren hondakinak, bereziki honako hauek: lorezaintzako hondakin ezpaltsuak (adarrak, enborrak), lurra, zigarrokinak eta hautsontzietako hautsa, animalien gorotzak, xurgagailuz edo erratzaz bildutako hondarrak, zapi bustiak, pixoihalak eta konpresak, olio eta, oro har, konpostatu ezin den material solido oro. Debekatuta dago hondakin organikoen frakzioa entregatzea konpostagarriak ez diren plastikozko poltsetan edo soltean, Udal Elkartearen baimena berariaz izan ezean. Debekatuta dago hondakin organikoen frakzioa uztea edukiontzi marroiaren kanpoaldean.

II. ERANSKINA. PAPERAK/KARTOIA

Paperaren/kartoiaren frakzioan sartzen dira egunkariak, aldizkariak, liburuak, gutun-azalak, propaganda, administrazioko paperak, kartoizko kaxa eta bildukinak eta abar.

Debekatuta dago paperarekin/kartoiarekin batera uztea paper eta kartoi garbia ez diren hondakinak, bereziki plastikoak, flejeak, brikak, paper zikina, arrandegiko edo harategiko paper zikina eta abar. Debekatuta dago papera/kartoia uztea edukiontzi urdinaren kanpoaldean.

III. ERANSKINA. ONTZI ARINAK

Ontzi arinen frakzioan sartzen dira: edarien ontziak; garbikarien ontziak; kontserba ontzi metalikoak; edarien lata; jogurtak eta antzekoak; olio eta ozpin ontziak; xanpu, gel eta antzekoak; plastikozko poltsak; esne, zuku, ardo eta tomate ontziak; esprai ontziak; kafe edo ur makinetako edalontziak; plastikozko, poliespanezko edo aluminiozko bandeja edo erretiluak; estalki eta tapoiak; opilen edo litxarrerien poltsak; lata eta botilak biltzeko fijasailak; hortzetako pasten tuboak eta antzekoak; eta, oro har, ECOEMBESEN "puntu berdearen logoa" daramaten brik, plastiko eta metalezko ontzi guztiak.

Debekatuta dago ontzi arinekin batera uztea ontzi arin garbiak ez diren materialak, bereziki: beirazko ontziak; pertxak; jostailuak; boligrafo eta errotulagailuak; zartagin, eltze eta sukalderako tresnak; etxeko tresna elektriko txikiak (plantxak, lehorgailuak...); diskoak edo datu, audio edo bideo zintak (CD, DVD, VHS, binilo...). Debekatuta dago ontzi arinak uztea edukiontzi horiaren kanpoaldean.



IV. ERANSKINA. BERIAZKO ONTZIAK

Beirazko ontzien frakzioan sartzen dira: beirazko botilak, kontserba ontziak (beirazkoak) eta, oro har, ECOVIDRIOren "puntu berdearen logoa" daramaten beirazko ontzi guztiak.

Debekatuta dago beirazko ontziekin batera uztea beirazko ontziak ez diren materialak, bereziki: bonbilak eta fluoreszenteak; ispiluak eta leihoak; eta zeramikazko eta kristalezko plater eta edalontziak. Debekatuta dago beirazko ontziak uztea beirazko ontzientzako edukiontzian ez bada. Debekatuta dago beirazko ontziak uztea ezarritako ordutegitik kanpora.

V. ERANSKINA. ARROPA/EHUNKIAK ETA ETXEKO BESTE HONDAKIN BATZUK

Arropa eta etxeko beste hondakin batzuen frakzioan sartzen dira: arropa eta ehunkiak (janzteko arropa, etxeko arropa, poltsak, gerrikoak, oinetakoak...); jostailuak (panpinak, autoak, pelutxeak, puzzleak, mahai-jolasak, piladun jostailuak, sehaskak, sehaska-mugikorrek, motxilak...); liburuak; aparailu elektriko txikiak (tresna elektrikoak, etxeko tresna elektriko txikiak, kamerak, telefonoak, ordenagailuak, produktu informatikoak, bideo kontsolak eta jolasak, telebistak eta ordenagailu pantailak, teklatuak, organo elektrikoak, mp4ak, DVD mugikorrek); imitazioko bitxiak (lepokoak, pultserak, eraztunak); eta bazarra (erremintak, instrumentuak, sukaldeko tresnak, iruditxoak, koadroak, lanparak).

Debekatuta dago arropa eta etxeko beste hondakin batzuekin batera hondakin hauek uztea: etxeko hondakin handiak (koltxoak, sokak, etxeko tresna elektriko handiak); kristaleria, ontziteria, tresna zorrotzak (labanak, kuterrak, guraizeak...); garbiketako produktuak edo produktu abrasiboak; pilak; pertxak; etxeko hondakin arriskutsuak (aerosolak, pinturak, disolbatzaileak).

Arroparen frakzioan sartzen dira: janzteko era askotako osagaiak (kaleko janziak, kirol arropa, uretako arropa, barruko arropa...); etxeko arropa (mantak, izarak, koltxak, edredoak, kortinak, toailak...); oinetakoak (egoera onean daudenak); osagarriak (gerrikoak, gorbatak, tiranteak, bufandak, zapiak, eskularruak, poltsak, karterak, diru-zorroak, gerriko poltsak...).

Debekatuta dago arroparen frakzioarekin batera uztea: erabilitako arropa ez den materiala; egoera txarrean dauden oinetakoak; alfonbrak eta moketak; garbiketako tresnak (fregonak, hautsa kentzeko trapuak, baietak...); garbiketaren erabilitako trapu eta hariak eta ehunkien establezimenduetako ebakinak. Debekatuta dago arropa uztea horretarako jarritako edukiontzian ez bada. Debekatuta dago edukiontzian arropa soltean uztea.

VI. ERANSKINA. PILAK ETA AKUMULATZAILEAK

Frakzio honetan sartzen dira pila eta akumulatzaile mugikorrek, otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak arautzen dituenak.

Debekatuta dago pilekin batera uztea kargadoreak eta urrutiko aginteak (telebista, musika aparailu eta antzekoenak). Debekatuta dago pilak uztea horretarako jarritako edukiontzian ez bada.



VII. ERANSKINA. SUKALDEKO LANDARE OLIOA

Frakzio honetan sartzen da soilik etxeetan sortzen den landare olio erabilia.

Debekatuta dago olio hori nahastea ibilgailuen olioarekin edo bestelako likidoekin. Debekatuta dago olio uztea horretarako jarritako edukiontzian ez bada. Debekatuta dago olio edukiontzian soltean isurtzea.

VIII. ERANSKINA. ERREFUSA

Errefusaren frakzioan sartzen dira: pixoihalak (haur nahiz helduenak); paper-zapi bustiak, konpresak, tanpoiak eta higiene pertsonalarekin zerikusia duten gisa bereko produktuak; xurgagailuz edo erratzaz bildutako hauts eta hondakinak; bizarra egiteko eta depilatzekeo xaflak; kosmetikako zapitxoak; preserbatiboak; arrandegiko edo harategiko paper zikina; tira, benda eta antzekoak; boligrafoak, errotulagailuak eta antzekoak; hautsitako jostailuak; zeramikazko plater eta edalontziak; zigarrokinak eta hautsontzietako hautsa; animalien gorotzak.

Hondakinak puntuz puntu biltzeko zerbitzuan Udal Elkarteak eskaini ahal izango du pixoihalak jasotzeko bilketa zerbitzu berezia (edo egoki ikusten duen beste sistemaren bat), hondakin horiek sortzen dituzten pertsoneri eskainia.

Errefusaren frakzioa puntuz puntu jasotzen duten udalerrietan debekatuta dago errefusaren frakzioan birzikla daitezkeen materialak uztea. Hori gertatzen bada, bilketa-zerbitzuak hondakin horiek jaso gabe utzi ahal izango ditu eta erabiltzailearen betebeharra izango da bilketa-puntutik erretiratzea, gehienez ere 24 orduko epean. Hondakinak entregatu behar dira Udal Elkarteak ematen dituen eta kodea duten ontzien bidez.

Hondakinak edukiontzien bidez biltzeko modalitatean debekatuta dago errefusaren frakzioa uztea frakzio hori jasotzeko edukiontzian ez bada. Debekatuta dago errefusaren frakzioa edukiontzian uztea ontzi, pakete, kaxa eta antzekoetan sartuta.

Debekatuta dago errefusaren frakzioarekin batera uztea likidoak edo likidotu daitezkeen hondakinak.

IX. ERANSKINA. EGUR HONDAKINAK

Egur hondakinen frakzioan sartzen dira: egurrezko bildukinak (paleak) eta egur hondakinak, hala nola, zerrautsa (inpregnatu gabea), birutak, egur zatiak, partikulazko oholak, oholak...

X. ERANSKINA. PLASTIKO FILMA

Frakzio honetan sartzen dira gisa honetako plastikoak: dentsitate altuko polietilenoa (PEHD -2), dentsitate baxuko polietilenoa (PELD -4). Plastikoen kolorea a priori ez da bilketa mugatzeko ezaugarria.



XI. ERANSKINA. POLIESPANA

Frakzio honetan sartzen da poliestireno hedatu zuria (EPS).
Debekatuta dago espuma, betelanerako chipa eta antzeko hondakinak uztea.

XII. ERANSKINA. HONDAKIN HANDIAK

Hondakinen handien frakzioan sartzen dira altzariak, etxeko tresna elektrikoak (etxeko tresna elektriko handiak eta txikiak, informatika eta telekomunikazio ekipoa, kontsumorako aparailu elektronikoak...) eta erabili ezin diren etxeko bestelako tresnak.

Debekatuta dago maneiatzeko bitarteko mekanikoak (garabiak, poleak...) behar dituzten hondakinak edo bere horretan garraiatu ahal izatea ezinezko egiten duten hondakinak uztea.

Debekatuta dago hondakin handiekin (etxeko tresna eta altzariekin) batera bestelako hondakinak uztea, bereziki eraikuntzako obra txikietakoko hondakinak, etxeko konponketa eta berritze lanetako hondakinak, pneumatikoak eta Ordenantza honen arabera derrigorrez jaso beharrekoak ez diren hondakinak.

Debekatuta dago hondakin handiak uztea Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek horretarako ezartzen dituen egun eta ordutegitik kanpora.

XIII. ERANSKINA. GARBIGUNEEN ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Gaur egungo ordutegia:

- a) Astelehenetik ostiralera: 8:30-13:30 eta 16:30-18:30
- b) Larunbatetan: 10:00-12:30
- c) Abuztuan: astelehenetik ostiralera 8:30-13:30 eta larunbatetan 10:00-12:30
- d) Igande eta jaiegunetan itxita.

Indarrean dagoen egutegia:

Garbigune zerbitzuaren urteko egutegia eskura egongo da Uda Elkartearen webgunean eta garbigune bakoitzaren sarreran.

XIV. ERANSKINA. GARBIGUNEAN ONARTZEN DIREN HONDAKINAK ETA MUGAK

Garbiguneetan onartzen dira honako hauek sortutako hondakinak: etxebizitzak; etxebizitzetako obra txikiak egiten dituzten gremioak (igeltseroak, iturginak...), obra edo lanak Udal Elkartearen eremuko udalerrietan egin badira; eta merkataritza establezimenduak, ostalaritza eta bulegoak.



Ez dira onartzen industriako eta obra handietako hondakinak. Nolanahi ere den, industria jardueran sortutako hondakinak garbigunean onartu ahal izango dira baldintza hauek betetzen badira, betiere Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen baimena aurrez jasota: ez badira ekoizpen jardueraren edo jarduera industrialaren ondorioz sortutako hondakinak, hondakinak etxeko hondakinen baliokide badira eta Ordenantza honetan zehaztutako eskakizunak betetzen badira.

Hondakin-mota hauek onartuko dira:

- Erabilitako automozioiko olioak (itxitako ontzian). Onartzen den kopurua mugatuta dago: 10 litro erabiltzaileko eta urteko.
- Erabilitako sukaldeko olioak (itxitako ontzian).
- Akumulatzaileak: Ibilgailuen bateriak eta akumulatzaileak.
- Aparailu elektrikoak eta elektronikoak (ordenagailuak, telebistak, irratiak, telefonoak...).
- Inprimagailuko tonerren karkasak.
- CDak eta DVDak.
- Lerro zuriko etxeko tresna elektrikoak (garbigailuak, sukaldeko tresna elektrikoak...).
- Kartoizko bilgarri edo enbalajeak.
- Etxeko altzari eta hondakin handiak (koltxoiak, sofak, somierrak...).
- Beirazko ontziak eta beira laua.
- Etxeko bilgarri eta ontziak (plastikozkoak, metalezkoak eta brikak).
- Etxebizitzetako obra txikietako obra-hondakinak eta obra-hondarrak (uralita eta fibrozementuzko osagaiak ez).
- Su-itxalgailuak.
- Ibilgailuen olio-iragazkiak.
- Fluoreszenteak eta lanparak. Onartzen den kopurua mugatuta dago: 5 unitate erabiltzaileko eta hileko.
- Jostailuak.
- Egurra (paleak, altzariak, kaxak, oholak).
- Metala eta txatarra (eltzeak, zartaginak, bizikletak...).
- Auto eta motorren pneumatikoak. Onartzen den kopurua mugatuta dago: 10 unitate erabiltzaileko eta urteko.
- Etxeetako papera eta kartoia.
- Pilak.
- Birziklatu ezin diren plastikoak.
- Birzikla daitezkeen plastikoak (polietilenoazko bidoiak, plastiko filma, poliespana).
- Lorezaintza eta kimatze-lanetako hondakinak, gehienez ere 15 cm-ko diametrokoak.
- Erradiografiak, termometroak eta iraungitako botika eta sendagaiak. Ez dira onartutako osasun-zentro publiko edo pribatuetako hondakinak.
- Etxeetako bestelako hondakin arriskutsuak: Pintura, berniz, disolbatzaile, kola, produktu fitosanitario, aerosol, silikona eta antzekoen itxitako ontziak eta produktu horiekin erabilitako trapu, pintzel, brotxa eta antzekoak. Soilik onartuko dira etxerako erabilitakoak. Onartzen den kopurua mugatuta dago: gehienez ere 10 unitate erabiltzaileko eta hileko.
- Arropa eta ehunkiak (itxitako poltsan).
- Beira laua (kristala).



Zerrenda honetako hondakin batzuentzat jarritako gehienezko mugak aldatu egin ahal izango dira, garbigune bakoitzeko arduradunaren irizpideen arabera.

XV. ERANSKINA. OBRA TXIKIETAKO ERAISPEN LANETAKO OBRA HONDAKINAK ENTREGATZEKO KONTROLA

Eraikuntza eta eraiste-lanetako hondakinei dagokienez, garbigunean onartuko dira hondakinen edukitzaileak entregatzen dituen obra txikietako hondakinak. Edukitzaile horrek obra-hondakinak garraiatu eta utzi beharko ditu hiru frakzio hauetan egoki sailkatuta: hondakin petreoak, hondakin arriskutsuak eta hondakin ez arriskutsuak).

XVI. ERANSKINA. BIRZIKLATZEKO ETXOLAKO HONDAKINEN ZERRENDA

Etxean sortutako hondakin hauek onartuko dira. Hondakin hauek onartuko dira:

- Erabilitako sukaldeko olioak: Itxitako ontzian.
- Ibilgailuen olioak: Itxitako ontzian. Ez dira onartzen konponketa tailerretako eta antzekoetako olioak.
- Inprimagailuen toner-karkasak, CDak, disketeak, bideo-zintak eta antzekoak. Ez dira onartzen inprimatzeko osagaiak saltzen dituzten dendetakoak edo arte grafikoen jardueratan sortutakoak.
- Aerosol ontziak (beteta edo erdi beteta).
- Fluoreszenteak: Beren bilgarrian.
- Etxetresna elektriko txikiak: Irabiagailuak, tostadorak, telefono mugikorak eta abar.
- Arropa, ehunak, osagarriak eta oinetakoak.
- Termometroak.
- Pilak: Pila mota guztiak.
- Erradiografiak. Ez dira onartuko osasun-zentro publiko nahiz pribatuetakoak.
- Garbiketako produktuak eta etxeko bestelako produktu kimikoak, ontzian itxita eta zehatz mehatz identifikatuta. Ez dira onartuko gisa horretako produktuak saltzen dituzten dendetatik edo laborategietatik datozen eta hondatuta edo iraungita dauden produktuak.
- Pinturak eta disolbatzaileak: Itxitako ontzietan.
- Fluoreszenteak.
- Kontsumo baxuko bonbillak.